



Euskadiko
Kutxako
bulegoetan
euskara
gehiago

Pilar Alzuri
argazkilaria

Mindegia eta
Goenatxo II.a
Legorretan



**Beasain
eta
Legorreta
jaietan**



IRUDI - Foto

☎ 943 888 100

San Inazio Kalea z/g BEASAIN

Argazki materiala eta errebelatuak



Kalitate-prezio hoberena

Ezkontza erreportaiak,
estudioko argazkiak,
argazkigintza komertziala
eta industrial
estudioan edo kanpoan.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Paper Eskola

Bigarren Hezkuntza Institutua eta Teknologi Berriztaren Zentroa



Kimika
alorreko
heziketa-
zikloetan
ikastetxe
espezializatua

Erdi-Mailako
Heziketa-Zikloak

- Prozesu-eragiketak
- Kimikako Plantan
- Laborategia
- Pasta eta paperaren Prozesu-eragiketak

Goi-Mailako
Heziketa-Zikloak

- Analisi eta kontrola
- Prozesu kimikoen industriak
- Pasta eta paper Prozesuen industriak

Eusko Jaurlaritzaren Menpeko Ikastetxe Publikoa.
Ikaslan-eko partaidea

- Enpresetan praktikak eta geure lan-poltsa ziurtatzen ditugu, baita LANGAI enplegu-zerbitzua ere.
- Lanean ari diren ikasleen portzentajia altua.
- Ikasleei onena opa diegu. ERABATEKO KALITATEA dugu helburu.
- AENOR, ISO 9002 zertifikatua lortzeko bidean gara.

Non zer

6 EUSKARA: Euskadiko Kutxarekin hitzarmena

6 ESKUTITZAK

7 TXANDAKA: Xabier Mendiguren

9 AHOLKUA: Idoia Bueno

10-11: Loinatz jaiak

12-13: 'Beasaingo argazki zaarren bilduma'

14: Legorretako jaiak

16: www.sasiet.net

17-28 KRONIKAK

LEGORRETA 17: Harripila kiroldegia iren inaugurazioa.

ZEGAMA 18: Arantzazura peregrinazioa. **GABIRIA 19:** Turismoa. **ITSASONDO 19:** Kultur astea. **ZALDIBIA 20:** Dantzari Txiki eguna.

BEASAIN 21: Jaiak. **ORDIZIA 22:** Dantzari Txiki eguna. **LAZKAO 23:** Pirinioetara bidaiak.

IDIAZABAL 24: Muskildirekin adiskidetzera. **ALTZAGA 24:** Alzagarateko festa. **SEGURA 27:** Santa Barbara eguna.

ATAUN 28: Herri Antzokiaren inaugurazioa.

29: Rosa Gullon pintorea

30-31: KIROLAK: Herri-kirol jaialdia Legorretan

34-35: AGENDA

36-37: Pilar Alzuri

38 FOTO ZAHARRA: 1980ko legorretarrak



Ascodel-Illazel elkarteak:

40 urtetik gorako langabetuentzat lana aurkitzea helburu

Illazel, Iraupen Luzeko Langabeziaren zuzenketarako elkarteak, aurkeztu zen Beasainen, atzo. Urtebete darama lanean elkarte honek bi helburu zehatzekin. Batetik, 40 urtetik gorako langabetuentzako lana aurkitzea du helburu, langabetu eta enpresarien artean bitartekaritza lana eginez. Bestetik, langabeziaren ondorioz galdutako eskubiak berreskuratzea.

Iñaki Letamendia elkartearen koordinatzaileak prentsurrean adierazi zuenez, justizia soziala eskatzen dute, horretarako legea aldatu behar bada ere. "Jende asko dago langabezian 50 urtetik gora gelditu eta 40 urte lanean aritu dena. Kasu horretan, 52 urterekin langabezian gelditu eta langabezia bi urtean kobratuta, kobratu beharreko jubilazioa oso eskasa gelditzen zaio. 40 urtean Gizarte Segurantzaren kotizatu eta 54 urtetik 60 urtera bitartean, langabezian dagoenean minimoa

kotizatuko du eta azken 15 urteetan kotizatutakoaren arabera izaten baita jubilazioa, beraz, 40 urtean lana egin eta gero miseria bat geldituko zaio jubilazioa. Kotizatutako guztia hartu beharko litzateke kontuan".

Gipuzkoako eskualderik gehien lanean ari da duela urtebete Illazel eta emaitzak onak lortu dituzte. Toloaldearen kasuan, 1001 lagunek eman dute izena elkartearen, 538 gizonen eta 463 emakumeen. 401 kontratazio egin dira, 280 gizonen eta 124 emakumeen. 51.109 egun kontratu dira guztira. Goierri, INEMen datuen arabera, 45 urtetik gorako 150 lagun daude langabezian.

Goierriko Illazel elkarteak Goierri Lanbide Eskolan dauka bulegoa eta Juantxo Kerejeta izango da arduraduna. Harremanetarako telefonoa, 943 885734.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierriarrak Kultur Elkarteak
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio Batzordea:** Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Laida Oiarbide, Inko Mujika, Pako Zubeldia, Idoia Bueno eta Xabier Mendiguren.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

Pilar Gabirondo kalean

Maiatzaren 12an libre gelditu zen Ezkio-Itsasoko Pilar Gabirondo euskal presoak, zazpi urtez kartzelan egon ondoren. Coruña-ko espetxean zegoen eta 1999ko martxoaz geroztik kalean egon behar zuen, zigorraren hiru laurdenak beteta.

Presoen aldeko ekimenak

Maiatzaren 19an egindako baraualdiarekin hasi zen presoen aldeko ekimenen zerrenda. Ezker Abertzaleak deituta, aste honetan elkartsun astea ari dira egiten. Asteartean irakaskuntza arloan zegoen greba deituta; asteazkenean, erakundeetan; eta ostegunean, produkzio arloan. Ostirala, maiatzak 26, mobilizazio eguna da eta herri gehienetan bada zerbaite antolatua.

Xabier Imaz

Maiatzaren 12an Segurako pilotariak ezin izan zuen Bigarren mailako buruz buruko finala irabazi. Sebastian Gonzalez azkaindarra izan zen garailea (22-15).

Joseba Beloki

Lazkao txirrindulariak Asturiasko itzulia irabazi zuen. Festina taldekoa da Beloki eta Frantziako Tourra ari da prestatzen. Aste honetan Euskal Bizikletan izango da.

Iker Sukia

Brontzeko domina lortu zuen pisu jaurtizaile ataundarrak Iberoamerikar txapelketan. Bertan lortu zuen marka 18,17 metrokoa izan zen.



Andramendi ikastolak irabazi du. Lehen Hezkuntzako arteko II. kartel lehiaketan, Lazkao San Benitokoak izan dira garaile. Jostailu lehiaketa azkenik, Ordiziako Urdaneta-Oianguren ikastetxeak irabazi dute. Ohiko oroi-garriez gain, gaur, bertan, maiatzak 26, jasoko zuten saririk handiena: Bida-rraira bidaia, rafting egin eta Donibane Garazi ezagutzera. Kutzako ordezkariak banatu zituzten sariak.

Sasieta sariak

Goierriko ikas-
tetxeen artean
egiten diren
lehiaketetako
sari-banaketa
egin zen maiat-
zaren 17an
Beasainen. VI.
Kartel lehiaketa
(DBH 1 eta
2), Beasaingo

Kooperazioari buruzko ikastaroa

Euskal Herriko Unicef batzordeak Nazioarteko Kooperazio eta Garapenerako Heziketari buruzko ikastaroa antolatu du Beasainen. Maiatzaren 29an eta 30ean izango da, Udaletxeko Batzar Aretoan, 18:00etatik 19:00etara. Jardunaldi hauen helburua, Kooperazio mundua biztanleengana hurbiltzea da eta aldi berean, Garapenerako Kooperazioari ekiten dioten Gobernu Kanpoko Erakundeengatik eginkizunari zein baliabideei buruz dauden hainbat zalantza argitzea.

Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa abian

Argi Berri Elkartek antolatuta martxan da IX. Lazkao Txiki Bertso Paper Lehiaketa. 3 mailatan banatu dute: 13 urte bitartekoena (gaia, itsasoa), 14-18 bitartekoena eta hortik goragokoena. Azken bi maila hauek gaia librea izango dute. Lanak uztailaren 1a baino lehen bidali beharko dira Bustuntza auzoan dagoen Argi Berri Elkartera (Ordiziako Gipuzkoa Kaleko 15.ena). Sariak: gaztetxoetan irabazleak 20.000 pta., gazteetan 30.000 pta. eta helduetan 50.000 pta.

MUGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA



Suquia

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK**

ERAKUSKETA:

☎ 943 88 23 00

**Kale Nagusia, 10
ORDIZIA**

Beasain, Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi eta Idiazabalgo udalek hitzarmena sinatu dute

Goierriko Euskadiko Kutxako bulegoetan euskararen erabilera areagotzea helburu

Euskadiko Kutxak Goierriin dituen bost bulegoetan euskararen erabilera areagotzeko eta sendotzeko hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 15ean Beasain, Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi eta Idiazabalgo udalek. Hiru urterako hitzarmena da eta erakunde sinatzaileek beren funtzionamenduko esparru guztietan, ahozko zein idatzizko harremanetan, euskara ahalik eta gehien erabiltzeko konpromezua hartu dute, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriz.



Beasain, Idiazabal, Lazkao, Ordizia eta Ormaiztegi-ko udalak eta Euskadiko Kutxa bera ere, euskararen erabilera gehitzeko ahaleginetan ari dira lanean, eta horren adibidea da, maiatzaren 15ean, Donostian sinatu zuten hitzarmena. Goierri eskualde euskalduna izaki

(Eustaten arabera, 10etik 7 euskaldunak dira eta 1 pasatxo ia-euskaldunak), euskarak trataera berezia behar duela aitortzen dute aipatutako erakundeek. Honela, orain arteko ekimenak indartu eta sakondu egin nahi dituzte.

Hitzarmena

Hiru urteko hitzarmena sinatu dute. Hitzartutako konpromisoak betetzen ari direla ziurtatzeko, bi aldeek jarraipen-batzordea eratuko dute.

Hitzarmenaren arabera, erakunde hauen arteko harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak, euskaraz izango dira. Era berean, euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan eta poliki-poliki horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte.

Euskadiko Kutxak kutxazain automatikoen sarean instalatua duen eta pantailan azaltzen den sarrerako agur aldakorra, euskaraz bakarrik azalduko da aurrerantzean.

Goierriko herri hauetan Euskadiko Kutxak bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan, euskararen presentzia ugaltzen ahalegin berezia egiteko konpromisoa hartu du, bezero euskaldunek zerbitzua euskaraz jaso dezaten. Hitzarmen honen epe-amaierarako, bezero euskaldunei helerazten dizkien idatzizko informazio, eragiketa eta gainerako guztiak euskaraz bakarrik helerazteko ahalegina egingo du. Gainerako ei elebidunak bidaliko dizkie, euskarak lehentasuna duela.

Euskadiko Kutxak bulegoetako euskararen presentzia (hormirudietan, iragarrietan, idazkietan, etab.) gehitzeko eta euskaraz lehentasunez eskaintzeko ahalegin berezia egiteko konpromisoa ere hartu du.

Inaxio Garro. Euskadiko Kutxako Euskara Zerbitzuaren arduraduna

- Lan handia eskatzen al dio hitzarmen honek Euskadiko Kutxari?

- Hitzarmen batek jasotzen duena bete eta aplikatzeak beti sortarazten die hitzarmenki-deei esfortzu eta ahalegin berezia, laneko egiturak eta lanerako funtzionamenduak aldatzen baitira. Dena den, eskakizun eta esfortzuaren tamaina helburuak eta emaitzak berak baldintzatzen dute. Lortu nahi dena gogo onez eta konbentzimenduz burutzen bada, eta burutze horretarako tresna egokiak eskaintzen badira, eskakizun maila oso apala da. Guri dagokigunez, Euskadiko Kutxaren oinarriko printzipioetan dago euskara eta euskal kulturaren sustapena, gure herriaren nortasunaren ardatza izanik. Eta hori guztia ("Izena eta Izana") oinarri sendo eta tinkoz gureganatuta dauka-gun neurrian, erronka beharrezkoa da, gizarte-ari kalitatezko zerbitzua eskaintzeko xedea erakutsiz.

- Zer izan da zailena?

- Goierriko udaletatik euskararen erabilera

sustatzeko eskaera jaso eta bi aldeek harremanetan jarri ginenez geroztik, bat etorri ginen hasiera-hasieratik hitzarmenaren helburu eta formulazioan. Paperazko lana, beraz, ez da batere zail eta konplexua gertatu. Bestalde, hitzartutakoa aplikatzeari dagokionez, egunez egun bete beharreko ardura izango da: langilegoa trebatu eta sentsibilizatu, inprimakiak egokitu, aplikazio informatikoak euskaratu...

- Aurretik beste herriren batean sinatu al da horrelako hitzarmenik?

- Bai, halaxe da. Urtebete dela sinatu genuen hau bezalako beste hitzarmen bat UEMA Mankomunitatearen baitan dauden 5 udalerrirekin: Aramaio, Bermeo, Leitza, Oiartzun eta Usurbil. Duela gutxi Ondarroa eta Lekeitio UEMAren barruan sartu direnez, beste bi hauetara ere zabaldu ditugu gure konpromisoa. Harrezkero, UEMAko ordezkariak behin eta berriz azpimarratzen digute gure bene-benetako jarrena eta borondatea, itxurakerietatik aldentuz.




XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurritara

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO
FAKULTATEA

IKASKETA HAUETAN

AURRE INSKRIPZIO EPEA ZABALIK DAGO

- Humanitateak-Enpresa Lizentziatura.
- Egokitze ikastaroa (Humanitateak-Enpresa Lizentziaturako 2. zikloan sartzeko).
- Irakasletza: Haru Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Atzerriko Hizkuntza Diplomaturak.
- Hizkuntzen Psikopedagogia (2. zikloa).

IZENA EMATEKO EPEA: Ekainaren 20a arte.

ORDUTEGIA: 08:30-12:00 eta 14:30-17:30

(ostiral arratsaldeak izan ezik)

INFORMAZIOA:

HUHEZIKo idazkaritzan, Eskoriatzako Dorleta auzoan.

Tel.: 943 71 41 57 • Faxa: 943 71 40 32

e-mail: sarrera@huhezi.edu • web orria: www.huhezi.muni.es

Harremanetarako: Marisa Pagonabarrena

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*



IDIAZABALEN TXALET ADOSATUAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 3 logela.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza, lorategia.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721

'Busque, compare...

Y si encuentra algo mejor, cómprelo". Zuetako askok gogoan izango duzue oraindik ere iragarki hura: Manuel Luque izeneko bat zen, Colón garbikaria egiten zuen fabrikako jerentea, eta bera agertzen zen xaboiaren propaganda egiten. Deigarria gertatu zen, publizitatean ohi duten moduan aktore-jendea erabili ordez lantegiko arduraduna bera azaltzen zelako, ageri-agerian eta bestelako martingalarik gabe bere produktuaren dohainen berri ematen. Ospetsua bihurtu zen gizona, ospetsua iragarkia, eta ospetsua eslogana ere, hizkera arrunteko esaera bihurturik.

Aspaldiko kontua da hori dena, telebista-kate bakarra genueneko nostalgiaren lanbroan galtzeko modukoa. Baina horra non gure bizitzan sartu den berriz ere Manuel Luque hura: ez gainera iragarki berri baten bidez baizik Goierriera etorri delako, lanera. Berria izango da albistea goierritar gehienontzat, ez ordea zaldibitarrentzat, hantxe ari baita lanean Luque, eta igarri diote dagoeneko, igarri diotenez! Zertan ari da ba gizon hori Zaldibian? Ez behintzat ardi-gazta egiten. Ofizio zaharrean dabil orain ere, lantokia aldatuta: Colón utzi eta Biloren, hain zuzen, xaboia egiten, zuri-zuri.

Garbikarietan ez dakit nik zeinek uzten duen arropa garbiago, Colonek ala Bilorek. Jerenteetan, berriz, marka guztiak hausten omen dabil Manuel Luque, fabrikako produkzioa handitzeko-eta. Normala da hori, noski, zuzendari ona den seinale eta enpresak aurrera egiteko garantia; hain normalak ez diren gauzak ere ari dira gertatzen ordea. Bat, nabarmena, Zaldibia osoa hauts txurixka batez estalita agertzea zenbait aldiz. Udaletxetik demanda egin diote behin baino gehiagotan, baina Biloren ba omen dituzte aurreragoko lanak, segurtasunean baino nahiago dirua beste zerbaitean inbertitu, nonbait.

Orain arteko isurtze horiek ez omen dira kaltegarriak gizon-emakumeon osasunarentzat. Hobe hala bada. Hala ere, ezjakin hutsak izan gaitezke baina, beldurra izateko arrazoiak eduki ditzake batek baino gehiagok. Orain arte ere ez zituzten nahita botako hauts txuri horiek, istripu txiki bat izan dela pentsatu behar; baina, zer gertatuko litzateke hurrengoan, baldin eta hor pilatuta edukitzen dituzten produktu kimiko pozoigarri horietako bat zabalduko balitz airean...? Hobe halakorik ez pentsatzea, eta iragarkiko bitxikeriarekin gelditzea: "busque, compare..."



**Xabier
Mendiguren
Elizegi**

**tarjeta
gazte kutxa
txartela**

"Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hementxe daukazu **Gazte Kutxa txartel berria**. Doakoa da, handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu 'Dohainik Erosi' sustapenaren baitan."

Besterik behar, ala?

www.gazte kutxa.net
e-mail: gazte kutxa@kutxa.es
900 40 41 42

Egin klik! hemen, abenturan jarraitu eta sariak irabazi ahal izateko.





9.600 Pta.



8.850 Pta.



2.350 Pta.



Graduatutako
eguzkitako
betaurrekoak

9.500

pta-tik
aurrera



ESKLUSIBAN

**Berriro
entzun**

Berriro entzun

**AUDIFONO DIGITAL BERRIEKIN SOINU DIGITAL GARBIENA
EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITU**

● Mikrokanala



la-ia ikustezina

● Intra-Aurikularra



Diskrezio osoa

● Retroaurikularra



Betiko laguntza

**DOHAINEKO ETA KONPROMEZU
GABEKO ENTZUMEN
AZTERKETA ELEKTRONIKOA**



**URETARAKO TAPOIAK
URAREKIN GOZATU!**

- Ertsiak
- Eragikorrak
- Zure neurrietara egokituak
- Erosoak

%10aren deskontua
audifono berrian,
zaharra uzteagatik,
eta urte beterako pilak
dohainik.

*Eta gainera apari zeragarri
bat zuretzat.*

GAES

**GAES MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

5.000 Pztako EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAY

Scooter 1

DENDA BAKOITZEKO

Zozketa



R.P.S. 164/99 zkl.a.

Lehiaketa

Galdera

Zenbat kiloko harriarekin jarri nahi du marka Goenatxo II.ak?

Erantzuna ekainaren Serako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria Anarko eta Ekonen CDa eta GOIERRITARREN kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Maiatzak 1.

Irabazlea:

Ekaitz Madariaga (Lazkao)



Idoia Bueno albaiaria

Negu zorrotik atera gara, eguna luzatzen ari da, eguraldia on-tzen eta kalera errazago ateratzen gara gure zakur laguna alboan hartuta. Neguan etxezuloan eduki ohi dugu gure zakurra, gozo-gozo, juxtu-juxtu bere egin beharrak egitera apenas 10 minutu bi aldiz egunean ateratzen delarik. Hemendik aurrera berriz zakur gehiago eta sarriago ikusiko ditugu kaleetan, parkeetan, mendian...

Komeni da urtaro aldaketa oro gure zakurra albaiariaren-gana eramatea, honek txeko sakon bat egingo diolarik eta

Gure zakurrentzat ere bizi kalitatea

bere osasun kartila bide batez eguneratu.

Gaixotasun epidemiak ten-peraturak igotzean ematen dira eta komeni da udarako gure za-kurrak txertatuak edukitzea.

Txakurkumeen kopurua ere udaberri aldera asko handitzen da eta bide batez txitxareen ku-tsakortasuna: komeni da gure zakurrari kaken analisia egitea txitxarerik duen ala ez ziurta-tzeko eta hala bada tratamen-dua jartzeko, (kontuan izan be-har dugu txitxare batzuk kutsa-korrak direla gizakiontzat, ba-tez ere umeentzat. Eska iezai-ozu aholkua albaiariari honi bu-ruz).

Horrenbeste buruhauste ematen dizkigun arkakuxoak ere ugaritzen hasi dira eta bide batez azaleko alergiak; eska iezai-ozu tratamenduen aholkua

albaiariari.

Gure zakurrak ilea botatzen hasiak dira, neguko ile itxia bo-ta behar dute. Ile aldaketak on-dorio hauek dakartza: batetik azkureak zakurrengan eta bes-tetik ile pilaketak etxean, arka-kuxoak ile hauetan ugaltzen di-relarik. Horrela, askotan beha-rrezkoa izaten da gure zakurra-ri ilea moztea.

Amaitzeko, ez ahaztu zure zakurra ez dela bere ohituren erantzulea, zu bai ordea, era-kuts ezazu!

● Zakurra paseatzera ateratzen duzunean kaleetan eta parkee-tan eginiko kakak jasotzeko ar-dura zurea duzu.

● Zakurra lotuta atera behar duzu.

● Zure zakurrak udaletxean erroldaturik eta behar bezala identifikatuta behar du egon.

TIZEN AHOLKULARITZA
Elosegi, 16
☎ 943 16 23 93
LAZKAO

*Aholkularitza juridikoa,
fiskala, laborala,
kontablea...*

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

OSKARBI
OINETAKOAK



*Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.*

Kick'ers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

× ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Loinatz jaiak Beasainen

Ekainak 2, ostirala:

16:30ean: Aldibereko xake-txapelketa, Gernika pasealekuan.

18:30ean: Erretiratuen etxeko tailerrean egindako eskulan-erakusketaren inaugurazioa, Erretiratuen etxean.

19:00etan: Erraldoi eta Kilikien irteera txistulariekin eta Musika Eskolako bandarekin.

20:30ean: Loinatz eta Musika Eskolako abesbatzak, Igartzako jauregian.

22:30ean: Mariren jaitsiera, San Martin plazan.

23:00etan: Goierriko Erraldoi eta Kilikien irteera, Koskola txarangak eta Hortz-mugak taldeak 'Galaxia' ikuskizunarekin lagunduta.

23:00etan: 'Basque ska old stars' taldearen kontzertua, Bideluze plazan.

Ekainak 3, larunbata:

09:00etan: Txistularien Udalandaren goizere-sia.

10:00etan: Meza, Loinazko Andre Maria-ren ermitan.

12:00etan: Umeen danborrada.

16:30ean: L. Loinatz Txirrindulari proba.

17:00etan: I. Loinatz eskuzko pilota txapelketa, kadete eta gazteentzat, Batzokiko frontoian.

17:30ean: Haurrentzako tailerrak 'Detraka' taldearekin, Joan Iturralde plazan.

18:30ean: Danborradako konpainien irteera.

19:00etan: Koskola txarangaren irteera.

19:00etan: 'Beasaingo Hiria' argazki-lehiaketako



erakusketa eta sari-ematea, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

22:30ean: Danborrada.

00:00etan: Danborradako konpainien bilkura eta azken joaldia.

00:30ean: Nafar jotzen jaialdia 'Raices Norteñas', Loinazko San Martin plazan.

00:30ean: 'Basajaun' taldea, Bideluze plazan.

Ekainak 4, igandea:

10:00etan: Kalejira txistularien Udalandarekin.

10:00etan: XXX. Loinazko San Martin Nazioarteko Xake-jokaldiak, Ezkiaga Auzo Etxean.

11:00etan: Landare eta sendabelarren erakusketa, Zubimuzu plazan.

12:00etan: 'Barea' marrazki-lehiaketa Zubimuzu plazan.

13:30ean: Udalbatzaren soka-dantza, plazan.

18:00etan: Haurrentzako ikuskizuna: 'Kollins clown' taldearen, 'Bikingoak' ikuskizuna, Joan Iturralde plazan.



ITZALA
taberna

Zaldizurreta, 3
☎ 943 88 30 24
BEASAIN

mujika
OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11
☎ 943 88 27 16 BEASAIN

Oiarbide

Oinetakoak

Jai zoriontsuak denoi!

Laskurain, 12 San Inazio, 14
☎ 943 65 37 86 ☎ 943 16 04 34
TOLOSA BEASAIN

EDARITEGIA

Jai

KAFETEGIA

Festa onak pasa!

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 943 88 86 81

BEASAIN

A HOLKULARITZA

GOENAGA

ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 16 00 65

Faxa: 943 16 03 59

19:00etan: Beti Jai Alai euskal dantzataldea, San Martin plazan.

23:00etan: Su artifizialak, Igartzako jauregiaren atzeko aldean.

23:30ean: 'Skalariak'-en kontzertua, Bideluze plazan.

Ekainak 5, astelehena:

08:00etan: Udaleko txistulari-bandaren goizeresia.

09:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen basilizara, txistulari eta dantzariekin. Jarraian, Meza Nagusia.

10:30ean: Erromeria usariozko taloak, erroskilak eta marraskiloak dastatuz.

10:30ean: Lagunarteko XXIV. futbol-txapelketako partidak, La Salle-San Josen.

11:30ean: Umeentzako parkea Igartzan, puzgarri eta bestelako erakargarriekin.



13:00etan: Laguntaldean irteera 'Oria' eta 'Incansables' txarangek alaituta.

16:00etan: Umeentzako parkea Igartzan, puzgarri eta bestelako erakargarriekin.

18:30ean: Laguntaldean bilkura txarangek alaituta, Barrendain plazatik abiatuta.

18:30ean: III. Laguntalde-
etako brusa-lehiaketa.

19:30ean: San Inazioko laguntaldea 'Oria' txarange-
rekin igoko da Erretiratuen
etxera eta Arangoiti Agureen
egoitzara.

19:30ean: 'Akelarre' tal-
dea, Bideluze plazan.

19:30ean: III. Lagunarte-
ko brusa-lehiaketaren sari-ba-
naketa, Bideluze plazan.

23:00etan: 'Akelarre'.

Ekainak 6, asteartea:

10:00etan: Kalejira Txistula-
rien Udal-bandarekin.

10:00etan: Urteroko azo-
ka berezia: barazki lehiaketa
San Martin plazan, azienda
eta hegaztien erakusketa Joan
Iturralde plazan, talo dastake-
ta Zubimuzu plazan eta Arti-
sau-azoka Zaldizurreta kale-
ko terrazan.

11:00etan: Umeen soka-
dantza, San Martin plazan.

12:00etan: Trikitilarien
joaldia San Martin plazan.

13:00etan: Bertsolariak:
Iñaki Murua, Andoni Egaña,
Sebastian Lizaso eta Aitor
Sarriegi, San Martin plazan.

19:00etan: Helduen soka-
dantza, San Martin plazan.

19:30ean: Bertsolarien eta
trikitilarien saioa, Loinazko
San Martin plazan.

J. ARANBURU

Gizon, emakume eta haurrentzako
OINETAKOAK

Festa onak pasatu!

Kale Nagusia, 36

☎ 943 88 01 27

BEASAIN

ELKARTASUN DENDA



☎ 843 88 52 05

Kale Nagusia, 14

BEASAIN

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1

☎ 943 16 16 72

BEASAIN




ILEAPAINDEGI MISTOA

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)

Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak
- Enmarkazioak

☎ 943 65 55 77

Nafarroa Etorb., 10

TOLOSA

☎ 943 88 40 56

J.M. Iturrioz, z/g

BEASAIN

ETXEBE TABERNA



Festa onak pasa!

Zaldizurreta kalea


BEASAIN

Josetxo Zufiaurre beasaindarrak argitaratu du: **'Beasaingo argazki zaarren bilduma'** **(1873-1960)**

Hogeita hamar urteko lanaren fruitua eskuartean dute Josetxo Zufiaurrek, eta aldi berean beasaindarrak. 1873 eta 1960 urteetako, berriagoak ere bai, 273 argazkiko bilduma egin du beasaindarrak. Ekainaren 1ean, Beasaingo jaiei ongi-etorria eginez aurkeztuko da liburua, La Salle-San Jose ikastetxean, iluntzeko 8etan.

Beasaingo argazki bildumako argazkirik berrienak 40 urte izatea zuen Josetxo

Zufiaurrek hasierako helburua. "1960. urte inguru hartan argazki makina jende askok erosi zuen eta argazkiak asko ateratzen ziren". 420 argazki zahar bildurik zituen beasaindarrak, baina entresaka egin eta liburuan 273 jarri ditu. Asmoa bestelakoa bazen ere, 26 argazki 1960koak baino berriagoak dira. "Frailetan eta monjetan urtero argazkiak ateratzen zizkien umeei. Maisu-maestrak eta ikastolan berri ez. Beraz, beranduagoak jarri



ditut argazki horiek. Loinatz abesbatzaren gaur egungo ere jarri egin nahi izan dut, bandarena ere bai".

Argazki gehienak Josetxok berak zituen, aitarengandik jasoak. Baina asko eta asko izan dira herriarrek utzitakoak. 103 argazki beasaindarrak utzitakoak dira; 23 Beasain Jaietan urtekari-tik hartuak; 11 beste aldizkari batzuetatik hartuak; eta 136 Zufiaurre beraren artxibokoak. Argazkirik gehienak, 169, ezezagunenak dira. Libu-

Bodegon Arrizar
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA
 Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
 Plater Konbinatuak, Ogitartekoak...
 Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

LARRAITZ
Lurrindegia
Opari gaiak
 Oriamendi Kalea ☎ 943 88 33 02
 BEASAIN

LORAZ
 Martxoaren 1etik aurrera berriro ere
ZABALIK
 Amaiares eskutik
Lili
 "Esteiak, zentroak, elizkizunetarako koroak, lore lehorrak, balkoiak..."
 Zaldizurreta 3 behe, Beasain ☎ 943 888149

Gaztelu
 ● Iturgintza
 ● Berogintza
 Mendi-Ondo etxea ☎ 943 88 40 57
 Esteban Lasa, 7 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

Urkiola
 ☎ 943 88 03 19
 Kale Nagusia, 7 BEASAIN

APURKA
OIHALAK KILOKA
 ☎ 943 889 010
 San Inazio, 6 - A BEASAIN

Festetarako
mozorroak eta
osagarriak
alokatzen dira
 Jantziak neurrira (heldu eta haurrentzat)
 Baita moztu eta probatu ere

ruaren amaieran, argazkiak utzi dizkieten lagunuen zerrenda azaltzen da.

Argazkiak noizkoak diren jakiten izan du lanik handiena. Argazkietan pistak aurkitu eta hortik atera ditu datak, nahiz eta askotan zehatz-zehatzak ez diren.

9 atal

9 ataletan banatu du liburua: ikuspegi orokor eta zatikoak, elizako eginkizunak, Loinazko San Martin, lantegiak, ikaskuntza, gizarteko harremanak, kirolak, musika bandak eta Loinatz abesbatza.

Pertsonalismoetatik ihes egin nahi izan du egileak eta taldeak edo pertsona asko agertzen diren argazkiak jartzan saiatu da. "Batean edo bestean pertsona bakarra ateratzen den argazkiak dau-de, baina hain politak ziren!", dio.

Argazki bakoitzaren azpian, euskaraz eta gazteleraz,



historiotxoa kontatzen da, labur-labur. Pertsonen izenik ez da azaltzen, askoz ere liburu lodiagoa egin beharko bailitzateke orduan. Dena den, beasaindarrei entretenigarri bat ematea izan du helburu Zufiaurrek, lagunartean elkartu, elkarriketak sortu eta istorioak biziberritzeko.

Euskalkian

Elebietan idatzi du liburua, euskaraz eta gazteleraz. Eus-

karari dagokionean, euskalkia, goierriera erabili du. "Euskalkiak galtzera doaz, oso gutxi idazten baita euskalkietan. Nik Goierriko euskalkian idatzi dut, Pello Goikoetxea Agirre ataundarrak zuzendu ditu testuak, Donostiako Udaletxeko Euskara zerbitzuko langilea da bera. Herrirako gauza bat denez, euskalkian idatzi dut".

Salgai

Josetxo Zufiaurrek egin dituen lan gehienak Beasaingo Udalaren eskutik kaleratu dira. Azken hau ere 'Beasaingo Paperak' atalaren barruan argitaratzeko egokia bazen ere, hiruzpalau urterarte itxaron beharra dagoenez, bere aldetik argitaratzea erabaki du Josetxo Zufiaurrek, "lana egin eta lehenbailehen ikusi nahi izaten da eta".

1.000 ale kaleratu ditu eta kostu prezioan salduko du, "Joxemiel Barandiaranek erakutsi zidan bezala, herri-tik jasotzen nuena berri ere herriari itzuliz".

Ekainaren 1ean egingo da liburuaren aurkezpena, 20:00etan, La Sallen. Aurkezpenean 1.500 pezetan salduko da liburua. Ekainaren 3tik aurrera, Beasain Jaietan urtekaria salgai egongo den lekuetan egongo da salgai, 2.000 pezetan.

NAGASAKI

Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN

LURRAZPIKO JAIA !!



ARANA, 1

☎ 943 88 93 88

BEASAIN




ITURRALDE, 1
BEASAIN

☎ 943 16 19 39



ZALDIZURRETA, 1
BEASAIN

☎ 943 16 19 35



- ✓ Pinturak
- Dekorazioa
- Industrialia
- ✓ Tresnak
- ✓ Makineria

Tfnoa./faxes: 943 88 65 63

Oriamendi, 32 BEASAIN



- ✓ Ileapaindegia
- ✓ Edergintza
- ✓ Solariuma

JAI ZORIONTSUAK
DENOI!

Nafarroa Etorbidea, 37

☎ 943 88 02 97 BEASAIN

Legorreta jaietan

Maiatzak 31, asteazkena:

19:15ean: Jaien hasierako suziaren jaurtiketa. Ondoren Gizon Pikua Udaletxeko balkoian jarriko da.

19:30ean: Buruhandiak eta kalejira dultzainariekin.

21:00etan: Lagunarteko afaria Bilkoin elkartearen.

22:30ean: Kalejira 'Txatunga Bembe' taldearekin.

Ekainak 1, osteguna:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Trikitilariak.

12:30ean: Herriko dantza-ri gazteen saioa.

18:00etan: Buruhandiak eta trikitixa.

18:30ean: Pilota partidak: Jubenilak: Urtaza-Agirre Amondarain-Zabalua; Afizionatuak: Huizi-Patxi Ruiz Eizagirre-Gutierrezen aurka.

19:00etan: Trikitilariak, sagardo dastaketa eta txorizo jatea.

23:30ean: Etzakit.

Ekainak 2, ostirala:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:00etatik 13:30era: Haur jolastokia kirol gunean.

12:30ean: Pote, igel eta toka txapelketa herriko jubituen artean.

14:30ean: Zikiro jatea Bilkoin elkartearen 'Iraunkorak' txarangak alaitua.

15:00etatik 18:00etara: Haur jolastokia kirol gunean.

19:00etan: Haurrentzako play back saioa.

23:00etan: Helduentzako play back-a eta Makro festa: DJ amateur ekitaldia.

Ekainak 3, larunbata:

11:00etan: Diana eta buruhandiak dultzainariekin.



13:00etatik gaueko 24:00etara: Mozorro eguna, 'Ertaroa' gaiaren inguruan.

13:00etan: Txakolin dastaketa txarangak alaitua.

13:00etan: Herriko XVIII. Paella txapelketa.

14:30ean: Herri bazkaria.

23:30-03:30era: Egan.

01:30ean: Mozorro lehia-ketaren sari banaketa.

Ekainak 4, igandea:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

12:00etan: Buruhandiak trikitilarietz lagunduta.

13:00etan: Herriko hau-

rreren arteko pilota partidak.

14:30ean: Trikitilariak.

18:00etan: Herri-kirolak Harripila kiroldegian: Goenatxo II. 200 kiloko errektangularrarekin Euskadiko errekorra ezartzen saiatuko da 2 minutuko txandan. Eta Mikel Mindegiaeren azken jendaurreko agerraldia, 3,20 metroko zirkunferentzia duen enborra ebakiz.

18:00etan: 'Iraunkorak' txarangarekin kalejira.

19:30ean: Haur danborrada txarangak alaitua.

Ondoren: Gizon Pikuaeren ehorzketa.

GUADALUPE TABERNA

Festa kondo igaro!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 63 85 LEGORRETA

IÑAXI Tabernak

jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 80 61 20

Nagusia, 8 LEGORRETA

ARANTXA TABERNAk

jai zoriontsuak opa dizkizue!

Kale Nagusia LEGORRETA

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadalupe Auzoa

LEGORRETA ☎ 943 80 63 55

PIKONDO TABERNA-k

festa zoriontsuak opa dizkizue!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 62 71 LEGORRETA

GOIHERRI, S.A. PAPERAREN MANIPULAKETA

'Jai zoriontsuak denoi'

San Migel, 7

Tfnoa.: 943 80 61 90

LEGORRETA

Udako ikastaroak • Barnetegiak

UDAL EUSKALTEGIAK



2000ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA.
Azken hau uztailean eta irailean.

Erritmoak

Uztailean eta irailean, egunean lau ordu eta erdi (8:30-13:00)

16 urtetik gorakoentzat.

Informazio gehiago Udal Euskaltegian.

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 12tik 26ra



BEASAINGO

UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a

☎ 943 02 81 00

BEASAIN

eredu S. Coop.

Lorategietarako
eta hondartzarako
altzariak

Diseinuko altzari
modernoak

Jai zoriontsuak denoi!

Ola auzoa,4 **LEGORRETA**

☎ 943 80 61 00 - Faxe: 943 80 63 74



Sasieta Mankomunitateak web gunea ireki du **www.sasieta.net**

Teknologia berrietara egokituz, Sasieta Mankomunitateak Interneten du bere lekutxo dagoeneko. Web orria ireki dute eta bertan aurki daiteke Sasieta Mankomunitateak egiten duenaren informazio zehatza.

Sasieta Mankomunitatean jorratzen diren gai guztiak sartu nahi izan dituzte Internet sarean. www.sasieta.net web gunean 24 atal ezberdin aurki daitezke, euskaraz eta gazteleraz. Era guztietako informazioa dago bertan, datu zehatz eta orokorrak. Urtarri-lean etxeetan banatutako birziklapenaren liburua oso osorik sartu dute. "Ikasle as-ko etortzen dira informazioa

eskatzuz, orain Interneten nabigatzearekin lortu ahal izango dute", dio Enrike Enparantza Sasietako teknikariak.

48 orriko web gunea sortu dute, informazioa erdia euskaraz eta bestea gazteleraz. Informazioa egokitzen eta berritzen joango dira Sasieta Mankomunitatekoak. "Zerbait dinamikoa izatea nahi dugu. Hilabetero zerbait aldatzea dute helburu. Jendearen iritziak ere kontuan hartzen saiatuko gara", adierazi digu Enparantzak. ACV eta Chip's-ekin egin dute lana eta izugarritzko lana izan bada ere, gerora lana asko arinduko zaiela uste du beasaindarrak.

Lehiaketak

Informazio serioaz gain, atal atsegingarriagoak ere sartu dituzte. Momentuan bi lehiaketa antolatu dituzte: batetik Galdera-zopa izenekoa. Galderei ondo erantzutea izango da helburua eta erantzun guztiak web orrialde honetan bertan aurki daitezke. Galdera guztiak ondo erantzuten dutenentzat saritxo sorpresa bat egongo da.

Bigarren lehiaketa, herri-tarren iritzia jasotzeko lekua izango da. "Web orria zer iruditzen zaizuen, zein akats ikusten diren, zer gustatu zaizuen, zer falta den, geldia den..." Ideia onenak ematen dituenak Artzai-Enea jate-txean bi lagunentzako afaria irabaziko du. Lehiaketa

gehiago jartzeko asmoa dute Sasietakoek, opari eta guzti.

Bideo-jokoa

Hain modan dauden bideo-jokoak ere tarte izango du www.sasieta.net gunean. Hurrengo ikasturtean dute asmoa diseinatutako bideo-jokoa sarean sartzeko. Bideo-joko hori zertan oinarrituko den aurreratu digu Enparantzak: "zabor ezberdinak eroriko dira zerutik eta bakoitza edukinontzi kolore egokiarekin tiro egin beharko zaio. Sasietan logotipoa, zuhaitza, izango da tiro egingo duena, eta txapelaren kolorea aldatu egingo zaio. Aldian aldi-aldian edukinontzi gehiago sartzen joango dira eta gero eta zailagoa izango da".

www.sasieta.net - Sar zaitez gure orrian

Artxiboa Edizioa Ikusi Joan Gustokoak Laguntza

Atzera Aurrera Gelditu Berritu Hasiera Bilaketa Gustokoak Historiala Kanalak Pantaila osoa

Helbidea <http://www.sasieta.net/>

www.sasieta.net

Hemendik aurrera Sasieta sarean ere bai!!

Informazioa! Lehiaketak! Opariak! Galdera-zopa!! Oroigarri berezia!

Prest Hasiera Sar zaitez Opari asko Sasieta Net 18:49

Harripila kiroldegiaren inaugurazioa



Larunbatean, maiatzak 27, Harripila kiroldegiaren inaugurazioa izango da. Hainbat ekitaldi egingo dira egunean zehar berau ospatzeko.

Goizeko 11,30etan, kiroldegiaren inaugurazio ekitaldi ofiziala egingo da.

Ondoren, 12,30etan, Legorreta Bilkoin - Promociones Sukia futbol partida ikusi ahal izango da. Bertan, aurtun mailaz igo den herriko taldeak ligako azken norgehiagoka jokatu du. **Jarraian** hamaiketako eskai-

niko da bertan biltzen diren guztientzat.

Arratsalde partean, bi kirol ekitaldi izango dira: **17:00etan**, judo erakustaldia izango da herriko gaztetxoek eskutik. **Ondoren, 19:00etan**, gizonezkoen senior mailako volleyball era-


kusketa partida jokatu da Atletico San Sebastian - UPV Hernani taldeen artean.

Gauean azkenik, eguna ondo amaitzeko, 22:30ean, Herri Zinemaren bertso jaialdia izango da. Bertan arituko diren bertsolariak: Joxe Agirre, Igor Elorza, Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze, Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Sarriegi.

Laida Oiarbide
Inko Mujika

Eskola Publikoaren festa

Ekainaren 11n Donostian ospatuko den Eskola Publikoaren festara joateko autobusa antolatu du Guraso Elkarteak. Izena emateko eta informazio gehiago jaso nahi duena, jar be-di harremanetan Guraso Elkartekoekin.



Ondo pasa festetan!

GUREA
JANARIAK
GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILLOA

EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN

XABIER SALINAS ELEKTROMEKANIKA

Erraminta elektrikoaren konponketa
Elektrikoa, pneumatikoa eta frekuentzi altukoa

☎ 943 88 21 49
Katea, 5
BEASAIN

Pottoka
KAFETEGIA

● Pintxoak
aukeran
● Ogitariekoak

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

AMEB



Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Sagardotegiko menua
- * Asteburuko menu bereziak
- * Sagardoa txotxetik
- * Karta zerbitzua
- * Plater konbinatuak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN



Arantzazuko peregrinazioa

Arantzazuko peregrinaziorako eguna iristear dugunez, urteroko izenemateak honako egun hauetan izango dira:

● **Autobusak:** Izena eman eta txartelak jaso behar dira, ekainaren 9 aurretik (Igande goizekorako izan ezik). Herrian erroldatuek lehentasuna izango dute.

● **Pazkoa bigarreneko afarirako** udaletxeko arkupeetan tokia hartzeko epea ekainaren 9an bukatzen da.

Herri-eskolako Guraso Elkartearen eta Udalaren arteko hitzarmena

Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkartek dituen diru-sarrerara urriak direla eta, eta bere helburuetako bat herriko haur eta gaztentoentzat zenbait ekintza berri antolatzeari izanik, Udalarekin harremanetan jarri ondoren San Martin Feriko asteburuko igandean haur eta gaztentoentzat ekintzak antolatzeko hitzarmen bat sinatu du Udalarekin. Hitzarmen honen

baitan Guraso Elkartearen esku geratuko dira antolaketak berak dituen lan eta erantzunkizun guztiak, Udalak 240.000 pezetako dirulaguntza emango diolarik, urteroko dirulaguntzaz gain.

San Bartolome jaietako argazki lehiaketa

San Bartolome Jaietarako aterako den programaren azala aurten argazki lehiaketa baten bidez aterako da, bertan parte hartzeko asmoa duzuenok, jakin epea maiatzaren 31n bukatzen dela. Oinarriak eta informazio gehiago Udaletxean.

IV. Haur abesbatza jaialdia

Maiatzaren 27an San Martin Parrokian izango dugu bertan, Gasteizko Olabide Abesbatza, Urretxuko-Zumarragako Oiargi Abesbatza eta Zegamako Orkatx Txiki Abesbatza izango ditugu. Ordua: 18:00etan.

Aizkorri F.K. dirulaguntza bila

Beasain, Lazkao, Segura, Ormaiztegi, Zerain, Zegama eta inguruko haurrak biltzen dituen oinarritzko futbol taldea da Aizkorri F.K. Maila ezberdinetako taldeak ditu eta aurten, infantilen taldea, Europako Unicef Cup txapelketara joango da. Italiako Rimini hirian jokatu da ekainaren 26tik uztailaren 2ra bitartean. Gastuei aurre egiteko dirua biltzen ari dira futbol taldekoak erakunde publiko eta pribatuaren artean. Kutxa-ko kontu korronea eman dute: 2101 0049 78 0010934750.



XXIII. Futbito txapelketa

Maiatzaren 27ko partidak:

Xerora- Shalky 07

Pott- Haizea

Aizkorpe-Tripiti

O. Benta- Tauriton

Edurne Albizu

Beasaingo Loinaz txirrindulari taldekoak diren Ruben Zabaleta eta Oier Arkonada zegamarrek Gipuzkoako txapelketako erloju aurkakoa irabazi zuten, infantiletan.

Laburrean

Erretzeari uzteko ikastaro arrakastatsua

Minbiziaren aurkako Elkartek, erretzeari uzteko ikastaroa zuzendu zuen, martxoaren 15ean hasi eta sei astetan zehar. 26 herritarrek hartu zuten parte eta horietatik hamabostek utzi diote erretzeari, hiru pertsonak erretzen jarraitzen dute eta zortzik ikastaroa utzi zuten.

Hitzaldia

Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailak 'Bihotzeko arazoak: prebentzioa' hitzaldia antolatu du. Pedro Perez Doktorea (Zumarragako Ospitalea lanean ari da) izango da hizlaria. Ekainaren 7an izango da, 19:00etan, Kultur etxean.

Ikastaroa

Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Etxez etxeko zerbitzuaren lan poltsa berri bat egin nahian eta aldi berean, adinekoekin lan egitea zer den ikasi ahal izateko aukera bat eman nahi da. Horretarako, ekainean, Etxez etxeko zerbitzuan lanean aritzen diren eta lana egin nahiko luketen pertsonentzat ikastaro bat antolatu da. Hogeitortzi orduko ikastaroa izango litzateke eta hamar egunetan emateko asmoa egongo litzateke. Izena, maiatzaren 29tik ekainaren 9arte eman ahal izango da Udaletxean. Jakinarazi nahi da, ikastaro hau lanerako baloratuko dela.



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA

Edozein motatako

teletatuak

egiteko

prestatuak:

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



Turismoari herria aurkeztuz

Eskuragarri dira dagoeneko Gabiria, Ezkio-Itsaso eta Ormaiztegi hartzen dituen turismo liburuxkak, 'Eztanda harana' izenez kaleratu dena. Orain arte turismo-merkatuari begira Gabiriaren izena eta izana zenbait argitalpenean aipatu izan den arren, lehenengo aldia da hau plan konkretu baten barnean txertatzen dena, udalek zuzenean bultzatuta.

Liburuxkak hiru udalerri mugakideen kokagunea eta bakoitzeko eskaintza interesgarrienak laburbiltzen ditu, eraikin eta elementu arkitektonikoak, salmenta-leku, alojamendu eta jatetxeak, naturari lotutako erakargarritasunak, e.a. Argazki ikusgarriek ere bisitariei gure bazter xume baina benetakoak ikusteko gonbitea luzatzen diete.

Kalitatea eta kontrastea azpimarratzen dira, gunelari eta paketsuen alboan aktibitate handiko enpresak dihardutela aipatuz, tradiziozko bizimoduaren lekuko diren baserriekin harmonian parke, frontoi eta igerilekuak garai berrien seinale. Bizimoduak jasan duen aldaketaren ispilu fidelak bihurtu zaizkigu herri txikiok, orain turismoa erakartzeko amu bihurtuak.

EZTANDA HARANA



EZKIO-ITSASO GABIRIA ORMAIZTEGI

GOIERRI

Goruntz Ordiziara

Apirilean Legazpin izan ondoren, datorren ekainaren 4an Goruntz Dantza Taldeko gaztetxoak Ordiziako Dantzari Txiki egunean partaide izango dira. Goizez eta eguerdiz kaleetan barrena kalejiran ibiliko dira beste taldeekin batera, tarteka dantza saioak eskainiz.

Sendotza

Igande honetan, hilak 28, hartuko dute herriko 10 gazte sendotzako sakramentua, bi urteko prestaketaren ondoren.

Festak

Joan den maiatzaren 18an herriko jai nagusiak, andamariak, antolatzeke lehenengo bilera egin zen. Egitaraua gorpuztuta, hurrengo ekainaren 15erako utzi da azken xehetasunak borobiltzeko lana. Abuztuaren 13tik 17ra egongo da zer ikusia eta parrandarako aukera.

Aimar Maiz

Bertso afaria

Gaur, maiatzak 26, ostirala, bertsoak entzuteko aukera izango da Osinalde Elkartean, hileroko lagun arteko afariaren ondoren. Eskualdeko zenbait bertsolari gazte ariko dira jardunean.



Kultur astea ekainaren 1etik 4ra

Aurtengo kultur astea ekainaren 1ean hasiko bada ere, maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean Josu Iztuetaren 'Hiru pauso hiru norabide'

izeneko erakusketa ikugai izango da Udaletxean. Ondorengo da ostegunetik igandera izango diren ekitaldien egitaraua:

Ekainak 1, osteguna:

16:30ean: Haurrentzako karoakea udal liburutegian.

19:30ean: Josu Iztuetaren 'Hiru pauso hiru norabide' diaporama gaztetxean.

Ekainak 2, ostirala:

16:30ean: Haur jolasak: altxorren bila, oka jokua... plazan.

21:30ean: Herri afaria Arbelaitz elkartean, Iruñe eta Izarotrikitilariak alaituta.

Ekainak 3, larunbata:

22:30ean: Bertso saioa Errotat pilotalekuan. Ondorengo bertsolariak arituko dira: Sebastian Lizaso, Amets Arzaillus, Xabier Amuriza, Aitor Sarriegi, Joxe Agirre eta Xabier Silbeira. Gai jartzailea Nikolas Zeberio izango da.

Ekainak 4, igandea:

12:30ean: Elizan, herriko abesbatza eta Pasaia gazteen kantaldia.



GESTORIA Biok
Errenta aitorpenak egiten dira

Goierri, 12 behea
ORDIZIA

943 88 44 00
943 88 12 58

JUANKAR

* Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
* Parket ezartzeak

943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

X. Dantzari Txiki eguna

Igande honetan, hilak 28, Dantzari txiki egunaren hamargarren edizioa ospatuko da Zaldibian. Iztueta dantza taldeak eta Zaldibiako udalak elkarlanean antolatutako festa honek berrehun haurretik gora bilduko ditu herrian eta kolore, jantzi eta dantza ezberdinek alaituko dute herri osoa.

Aurtengo Dantzari txiki egunean sei dantza taldek hartuko dute parte: Ordiziako Jakintza, Lazkaoko Oinarin, Beasaingo Aurtzaka, Lasarteko Erketz, Berako Gure Txokoa eta Zaldibiako Iztuetak.

Hau da egun honetarako prestatu den egitaraua:

Goizean:

11:15etan: Dantza taldeak elkartuko dira herriko plazan.

Ondoren, dantzari guztiei hamaiketako eskainiko zaie.

12:15etan: Dantzarien desfilea hasiko da. Desfile bukatu ondoren, herriko plazan jaialdia.

Erakustaldiaren bukaeran, dantzarien bazkaria izango da herriko plazan.

Arratsaldean:

16:30etan: Hankagorri taldeak 'Bonberoak' ikuskizuna antzestuko du.

Beraz, eguraldia lagun izanez gero igande paregabe batez gozatzeko aukera izango dugu zaldibitar guztiok.



Globalizazioa dela eta ez dela

Azkenaldian asko hitz egiten da Globalizazioaren inguruan, baina egia esan ez dakigu hitz honek benetan zer adierazi eta suposatzen duen. Ardatza hau izanik, Zaldibiako Udaleko Kultura batzordeak agenda betea dakarkigu egun hauetarako.

-Maiatzaren 29tik ekainaren 3arte: Sebastian Salgadorek argazki erakusketa "Sem Terra" mugimenduaren inguruan

-Maiatzaren 30ean, arratsaldeko 8etan: Globalizazio gaia inguruan hausnarketa. Hitzaldia: 'Euskal herritik Euskal hirira' gaitzat harturik, Garikoitz Plazaola Eguzkiko kidea eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako kide bat.

-Ekainaren 1ean, arratsaldeko 8etan: Globalizazioaren nondik norakoak, zer da, zergatik... Solasaldia: Mikel Zurbano (EHUko irakaslea), Joselu Cereceda (LABeko kidea) eta EHNEko kide bat.

Udako jarduerak

Uda ate joka dugun garai honetan, uztailan egiten diren jardueren berri ematera gatzokizue. Bakar-bakarrik esan, jardueretan parte hartzeko izena emateko epea maiatzaren 30erarte zabalik dagoela. Matrikula 1000 pezeta kostatzen da eta 2 eta 12 urte bitarteko haurrak soilik apuntatu daitezke.

Gurasoei zuzenduriko hitzaldiak

Nerabezaroa edo adoleszentzia gai bezala harturik bi hitzaldi izango ditugu herrian:

-Nerabezaroa eta Sexualitatea: Amaia Vazquez. Ekainak 7, eguerdiko 14:00etan, Kultur etxean.

-Nerabezaroa eta Familia: Txus Congil. Ekainak 14, eguerdiko 14:00etan, Kultur etxean.

Iraola eta Muruarekin solasean

Beti-Gazte elkarteak antolatuta, solasaldia izango da Kultur etxean maiatzaren 31n arratsaldeko 6etan. Rufino Iraola eta Iñaki Murua arituko dira 'Artxanberri eta Lazkao txiki bertsolarien nondik norakoak' kontatzen.

Mikel Telleriaren kontzertua

Mikel Telleria musikari idiazabaldarrak 'Deklarazioa' izeneko diska berria aurkeztuko du Zaldibian datorren hilaren 2an herri antzokian. Gasteizen bizi den izaldar honek, bere taldearen laguntzaz, folk-rock estiloa landu du. Sarrera: 300 pezeta.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroia Jauregi*

KIROLA

Alebin neskak txapeldun

Oraingoan berri onekin gatzoz berriz ere, Lardizabal herri eskolako neskek finalean 4-1 irabazi zioten aurkariei. Denboraldi ezin hobea egin dute Agirre eta Makutok entrenaturiko neskak, eta azkenean lortu dute amestutako garaipena. Hala ere, denboraldia ez da amaitu, aurki Euskal Herriko txapelketa jokatu beharko baitute. Animo eta segi horrela neskak!

Pilotariak punta-puntan

● **Aratz Mendizabal** 17 urteko pilotariak Federazio arteko txapelketan garaipena lortu du binakakoan Oteiza zarautzarrekin. Txapelketa honetan Araba, Bizkaia, Errioxa, Nafarroa

eta Gipuzkoako federazioek hartu dute parte, eta gure herrialdea ordezkatuz herriko bi pilotari aritu dira jokoan, Aratz eta Ibon, nahiz eta azken hau ordezko lanetan aritu den.

● Iaz finala jokatu bazuten ere, aurtengoan **Elgetako lau eta erdiko txapelketatik** kanpo geratu dira Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga. 23 urte azpiko kategorian aritu dira jokoan eta hasierako partidak irabazi bazituzten ere, azkenean kalera-etu egin dituzte. Beste batean beharko du bada!

● **Herrien arteko pilota txapelketa** dela eta, ostiral honetan gaueko 9,30etan, Zaldibiako taldeak Lasarteko pilotariak izango ditu aurrez aurre. Emaita ona lortuz gero, hurrengo kanporaketara pasatzeko aukerak dituzte.

Loinatz jaiak datorren astean

Ekainaren 2an hasi eta 11 bi-tarte luzatuko dira aurtengo Loinatz jaiak. Eta hasi, azken urteotan ohitura bihurtu den moduan Mariren jaitsierarekin hasiko dira. Aurtzaka dantza taldekoekin batera, herriko edozein jendek dauka bertan parte hartzeko aukera. Sorgin edo baserritarrez moztortuta, antortxak eskuan dituztela, 22:30ak inguruan Udaletxeko plazara inguratuko dira trikitixaren laguntzaz, kantari, irrintzika eta dantzan. Bertan, Mariren jaitciera aldarrikatuko dute sugarren inguruan akelarrea irudikatuz. Mari, Murumendikoa zela esaten zenez, bertatik jaisten denaren antzez-

pena egiten da. Plazaren erdian pizten den sutara erori eta erre egiten da. Ondoren, Mari antzezten duen pertsona, Udaletxeko balkoian azaltzen da, jaietako pregoia irakurri eta aholkuak emanez. Jarraian pizten den suziriaren ematen zaie jai ehasiera ofizialki behintzat.

Egitarauaren azala

Aurtengo Loinatz jaietarako egitarauaren azala eta kartelaren diseinua Nekane Fernandez Agirrezabala gazteak egin du.

'Goming' jauziak

Ekainaren 10an, 'Goming' jauziak egiteko aukera izan-



go da Bideluze plazan jarriko duten grua batetik. 80 jauzi egingo dira egun osoan zehar. Interesatuta zaudetenok, aldezturik erosi beharko dituzue txartelak 2.500 pezetan aurreko egunetan. Txartel hauetan azalduko dira jauzi hauek egin ahal izateko bete behar diren baldintzak. Interesatuok deitu 21:00etatik 22:00etara 943 160003 telefonora eta Maitenaz galdetu.

Erakusleihen Lehiaketa

Erakusleihen lehiaketaren aukeraketa, jendeak emandako botoz egingo da. Botoa eman nahi duten pertsona guztiek, Beasaingoak izan ala ez, Segura Irratira deitu beharko dute ekainaren 5, 6, 7 edo 8an eguerdiko 12,30etatik 1era. Botoa emateko deitu duten pertsonen artean erosketak egiteko 8.500 pezetako bi bale zozketatuko dira.

Nekane Altuna

LABURREAN

Ardoaren inguruko jardunaldiak

Murumendi Pelotazale Elkartek antolatuta, jardunaldiak egingo dira maiatzaren 31tik ekainaren 2a bitarte, ardoaren inguruan daukagun ezagutza handiagotzeko. Ardoaren dastaketak ere egingo dira, Roberto Ruiz beasaindar sukaldari aditua bertan dela.

Odol ateraldia

Maiatzaren 29an, astelehena, urteko zortzigarren odol ateraldia egingo du Beasaingo Odol-emaileen delegazioak. Ohi den bezala, arratsaldean izango da Urbi-Etxeko kalean.


'Bidezko Merkataritzaz' jarduera

Gizarte Ongizate Sailak antolatuta, 'Bidezko Merkataritzaz' jarduera izango da igande honetan, maiatzaren 28an. Loinatzko San Martin Plazan postuak jarriko dira Gobernu Kanpoko Erakundeek jenero batzuk salgai jar ditzaten. Iaz Nikaraguan eta Ekuadorren egondako gazte beasaindarrak ere bertan izango dira eta argazki-panelak jarriko dituzte ikusgai plazako kioskoan.

Umeentzako marrazki-tailerra ere izango da. Elkartasunezko marrazkiak egin beharko dituzte gero Venezuelako eta Nikaraguako ikastetxe batzuetara bidaltzeko. Jarduerak, 4,30etan hasi eta 8,30ak arte iraungu du. Helburua, herrian sentiberatze arloan zerbait egiten hastea eta elkartasun eta lankidetzan aritzen direnak geroz eta gehiago izan daitezen.

PELUQUERIA
Pascual
ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
© 943 882 248 BEASAIN



Jai zoriontsuak

- Ile tratamenduak (dohaineko analisia)
- Dermokapilar masaiak
- Koloretan azken teknikak
- Produktu gama zabala



opu dirikizuegu!

Unanue
Ume Jantziak
Puerikultura
© 943 88 71 94
Nafarroa Etorbidea, 4 BEASAIN

Dantzari Txiki eguna ekainaren 4an

Herriko auzoak alaitzeko asmotan hor ariko dira datorren ekainaren 4an hainbat dantza talde. Dantzari Txiki eguna ospatu nahian Gabiria, Dulantzi, Lazkao, Orereta, Zarautz, Zaldibia, Urretxu, Lasarte eta Ordiziako dantza taldeek euren saioak eskainiko dituzte, bai auzoetan eta baita Enparantza nagusian ere. Eguraldia lagun badute egun alaia pasatzeko parada, bai dantzan arituko diren gaztetxoentzat eta baita herritarrentzat ere. Dantzari txikiok herriko hainbat elkartetan bazkalduko dute eguerdian.

Prestatuta dagoen egitaraua hauxe duzue: **11:00etan:** Taldeei harrera eta hamaiketakoa, Txakurtzuloko aparkalekuan. **12:00etan:** herrian desfilea. **13:00etan:** alardea, Joxemiel Barandiaran enparantzan. **14:00etan:** bazkaria, herriko etxeetan. **16:30etik 18:00etara:** Plaza Nagusian berbena, Kiki, Koko, Moko eta Flax pilazoekin.

Dirulaguntzak

Udaleko Euskararen Aholku batzordeak %50eko dirulaguntza emango die udako euskarazko ikastaroak egiten dituzten langabe edo ikasleei, bai Udako Euskal Unibertsitatean zein Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroetan. Inprimakiak udaletxeke bulego nagusian zein euskara zerbitzuko bulegoan aurkeztu beharko dira.

San Fermin zozketa martxan

Uztailaren 7a urrun ikusten bada ere, Txindoki Taberna-koak lanean jarri dira jada eta herrian hain tradizio handikoa den San Fermin zozketa martxan jarri dute. Taberna erabat eraberriturik bada ere zozketak bere horretan dirau eta hirugarren urtez jarraian Jesus Mari, Etxezarreta kalean dagoen Txindoki Tabernako jabeak, hartu du zozketa antolatzeko ardura.

Zozketatik ateratako irabaziak San Jose zahar egoitzarentzat izango dira. Txartelen salneurria 50 pta.koa izango da eta urtero bezala errekor berri bat lortu nahian abiatu dira antolatzaileak. Hau lortuko bada ziur esker-tuko duela zahar egoitzako jendeak.

Poltsikoko ikuskizunak

Aurtengo edizioari Hika taldearen 'Arraultza delikatuak' lanak eman bazion hasera, jarraipena gaur bertan egingo dio Belladona taldearen 'La frigidez como manifestación explosiva de la ninfomanía' antzerki lanak eta amaiera ekainaren 2an emango dio Free Pelota kafe antzerkiaren 'El marido de la Pakita'k. Guztiok Barrena Kultur etxean izango dira gaueko 10,30etatik aurrera. Gogoratu baita ere maiatzaren 27an, larunbata, 'Araujo y los mecánicos' musika taldearen kontzertua izango dela Barrenan, 19:30ean.



Kirol albisteak

● **Futbola:** Herriko talde nagusiak igoera eskuratu du azkenean. Urtebete soilik eman du errejional mailako bigarrenen eta datorren urtean errejional mailako lehen kategorian egongo da. Azken neurketa hil ala bizikoa izan zen, derrigorrezkoa zen garaipena eta herriko jendea lagun zutela Urrietaren aurkako norgehiagokan 0-4ko emaitza lortu ondoren, igoera ziurtatuta. Denboraldi hasieran Zuzendaritzakoek ipinitako erronka gaituta hemendik aurrera datorren denboraldiari begira jarri beharko dute.

● **Atletismoa:** Txindoki Atletismo Taldeak ere mailaz igozteaz lortu du. Basaurin jokaturako txapelketan sekulako emaitzak lortu eta gero Erkidegoko lehen mailarako igoera eskuratu eta datorren denboraldian goren mailako taldeekin arituko dira lehian (Real Sociedad, UPV, Atletico San Sebastian...). Aipamen berezia merezi dute Basaurin garaipenak lortu zituzten Imanol Erauskin (txabalina), Eneko Caballero (martxa), Eneko Barandiaran (pertiga), Zudaire (hesiak), Valdivieso (oztopoak) eta Lariz, Zudaire, Etxeberria eta Blanco laukoteak (erreleboak).

● **Lagunarteko futbol txapelketa:** Lehen fasea amaituta 8 talde besterik ez dira geratzen bigarren fasea jokatzeko. Antolatzaileek bi multzotan banatuko dituzte berriro ere 8 taldeok eta hemendik irtengo dira finalerdiak jokatu dituzten lau taldeak. "A" multzoan Bustunmira, Badago, E.R.Matxain, Ileapaindegia eta Sylum arituko dira nor baino nor eta "B" multzoan, berriz, Haydaos, Urbitarte Sagardotegia, Morapios eta Wiskas. Asteburu honetan hasiko dira neurketak.

● **Saskibaloia:** Federatuek denboraldia amaituta herriko koادرlei iritsi zaie txanda eta dagoeneko martxan da XIX. Saskibaloitxapelketa. Interesatuta dauden taldeek euren izenak eman beharko dituzte ekainaren 2a baino lehen bai Majori Kiroldegiko Tabernan edota Boga Boga tabernan. Izen ematea doanekoa izango da.

Karrozak

Herriko jai nagusiak hurbiltzen ari zaizkigula eta dagoeneko egin dira lehen bilerak. Egitaraua piskanaka itxura hartzen ari da eta honen barruan urtero bezala hain sona handikoa den danborrada ospatuko da. Bertan karrozak

ere protagonista izaten dira eta karrozaren bat egiteko prest laguntalde eta Elkartarik balego maiatzaren 31arteko epea izango du zirriborroa aurkezteko Barrena Kultur etxean.

Aitor Calvillo

Pirinioetara bidaia



Aurreko urteetan bezala Ama-Lur elkarteak San Benito ikastolarekin batera jada hilabete honetarako ohiko den mendiko irteera bat antolatu dute.

Dena den, nahiz eta azken sei urte hauetan Europako gailurrak izan diren irteera honen ardatz, aurtan Pirinioetarantz zuzenduko dira.

Bihar irtengo dira goizeko seietan Lazkaoko mendizaleak. Anayeteko eski geltokira iritsi ondoren Ibon de Anayetera joango dira. Eta bertatik baliteke tontorren bat ere egitea. Ondoren, Formigal herrira abiatuko dira.

Igandean, berriz, Pantikosako Laku Urdinak ikusteko aukera izango dute. Eta bazkaldu ondoren, arratsaldeko lauak aldera, Lazkaora itzultzeko bidaiari ekingo diote.

Maizpide naturarekin bat

Maiatzaren 31an, asteazkena, Guillermo Roa Zubia kimikan doktorea Maizpide Euskaltegian izango da hitzaldi bat ematen; 'Itsasoaren erantzunak'. Izan ere, giza-kiak itsasotik produktu asko ateratzen ditu. Horretarako ontzi erraldoiak eta lantegi handiak eraiki ditu bertan.



1'2 kiloko onttoa

Maiatzaren 23an ikastolako haur eta guraso batzuk Lizarrutitik Kaxetarako zeharkaldia egin zuten. Bernotik Kaxetara iristen ari zirela Patxi Madariagak bidearen ondoan bista-bistan argazkian eskuan duen ontto ikusgarria aurkitu zuen. Lazkaora iritsi zirenean nahiko ikuskizun sortu zuten, 1'2 kilo pisatu eta 27 zentimetroko diametroa neurtu zuen onttoak. Harritzekoa da, gainera, zein egoera onean dagoen.

Ekologiaren ikuspuntutik horrek hondamena dakarren arren, ustekabeko hainbat efektu gertatzen da itsas hondoetan. Adibidez, Iparraldeko Itsasoko olio-plataformaren hanketan korala hazten da. Arazo honi buruzko informazioa zabaltzea da hitzaldi honen xedea.

Guillermo Roa 'Itsasoaren erantzunak' lemapean emango duen hitzaldia gaueko bederatzieta hasiko da eta ordu beteko iraupena izango du gutxi gora-behera. Gainera bi zati bereiztuko dira: lehenengoan hizlariak gaiari buruzko azalpenak emango ditu, eta bigarrenan, entzuleek galderak egiteko aukera izango dute.

Bestalde, ekainaren zazpian ikusentzunezko bat izango da Maizpiden. Diaporama honek ere naturarekin izango du zerikusia. Baina, kasu honetan, mendia izango da aztergai. Javier Fernandez Sanchez-ek Pirineoetan aurkitzen den altxor bati buruz hitz egingo digu: Tena Harena, hain zuzen ere.

Elordi Garcia

Erakusketa berria

Ekainaren 1etik 16ra Lazkaoko Kultur Etxean beste erakusketa bat izango da ikusgai. Erakusketa hau argazkilari eta biologoa den Javier Fernandezek eskutik datorkigu.

'Gipuzkoako paisajeak: itsasertza' lemapean 40x50 cm.ko 25 argazki ikus daitezke. Argazki hauetan itsasertze-ko paisaje ezberdinak azaltzen dira, hala nola, mendiak eta labarrak, kaiak, jendea edo Irun eta Mutriku arteko xehetasunak markoetan kokaturik, baita inguruko beste herri batzutan egindako argazkiak ere. Gure itsasertze-ko, herrietako zein hirietako, paisaje anitza. Gainera argazki bakoitzak argazki-oina du euskaraz zein gazteleraz, argazkien nondik norako garrantzitsuenen berri ematen dutenak.



RENAULT
AGENTZIA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK



Zuberoako Muskildirekin adiskidetzea

Herriko ordezkari bat Zuberoako Muskildin izan berri da, bi herrien artean hasi nahi den adiskidetzaren lehen urratsak emateko. Idiazabalgo ikastola izandakotik gordeta zegoen diruaren zati bat Iparraldeko ikastolei ematea erabaki zen. Laguntza emateaz gain, Iparraldeko herri batekin hartuemanetan hastea interesgarri iritzi zioten, eta hortik dator bi herriek hasi berri duten gertutzea.

Udaleko eta ikastolako batzordea osatzen zuten ordezkariak Zuberoara egindako bidaiari, Sohütako ikasto-

la bisitatzeak aukera izan zuten. Izan ere Idiazabalgo ikastolak, gordeta zuen dirua Seaskaren (Iparraldeko Ikastolen Elkarte) esku utzi zuen eta azken honek dirua Sohütan (Zuberoa) egin berri duten ikastolari ematea erabaki du. Seaskako ordezkariak proposatu zieten idiazabaldarrei Sohütatik gertu da goen Muskildikoekin hartuemanetan hastea.

Lehendabiziko bileran elkar ezagutu eta bakoitzak bere herriaren berri eman zien besteari. Mahai gainean, aurrera begira egin daitezkeen ekitaldiak jarri zituzten: he-

Argentinara bidaiak

Irailaren 8tik 12ra egingo dituzte Argentinako Idiazabalen herria sortu zeneko 90. urteurreneko ospakizunak. Argentina-rrak udaleko ordezkari bat bertarako gonbitea egin dio. Hala ere hainbat herritarrek Argentinara joateko interesa azaldu dute. Hori dela eta, bidai hori egin nahi dutenek (bakoitzak berea ordainduz) ekainaren 9a baino lehen izena eman behar dute Udaletxean. Ondoren izena eman dutenekin bilera egingo da.

rriko neska-mutikoei egonaldiak egitea, herri bakoitzeko kultur taldeen trukeak, Xiberoko Botza eta Zirika Irratiaren arteko lankidetzak...

Proposatutako guztiak bakoitzak bere herrian pentsatu, landu eta uztailaren lehen Muskildiko ordezkariak Idiazabala egingo dute bisitan gehiago zehaztuko dituzte.

Artisau azoka

Kultura Batzordea artisau azoka antolatzen ari da ekainaren 11rako. Egun guztian artisauak lana nola egiten du-

ten ikusi eta egindakoa erosteko aukera izango da (hurrengo alean xehetasun gehiago).

Presoen alde

Idiazabalgo Ezker Abertzaleak astelehenero arratsaldeko 8etan presoen eskubideen aldeko konzentrazioak egingo ditu plazan. Maiatzaren 19tik 20rako gauean bestalde, herriko gazte talde batek deituta itxialdia egin zen Kultur Etxean presoen egoera salatzeke.

Xabier Urteaga



Altzagarateko jaiak ekainaren 4an

*Iñaki
Azurmendi
arriarandar
aizkolaria
Altzagaraten
izango da
igande
arratsaldean.*



Ohi bezala, Azentzio eguna ospatzeko, ekainaren 4an jaia antolatu da Altzagaraten. Jarraian izango duzue prestatuko egitaraua:

12:30ean: Meza Nagusia.

14:00etan: Imanol Lazkano eta Jon Maia bertsolariak eta Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak.

Ondoren: Lagunarteko bazkaria, bertako tabernan.

18:00etan: Aizkolaria saioa: Iñaki Azurmendik eta Luis Mari Txapartegik 10 kana erdiko ebaki beharko dituzte.

Bukatzeke: iluntzerarte trikitilari eta bertsolarien saioa.

Pako Zubeldia

IÑAKI AZURMENDI

Herri kirol erakustaldiak

BEASAIN

☎ 943 16 16 74
☎ 616 44 66 22



Olagi Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

TXINDOKI - ALKARTASUNA INSTITUTUA

Ugartemendi, 6 20200 Beasain Tel. 943 88 73 93 Fax 943 16 10 48 Email txindoki@jet.es

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

1 INGURUGIRO KIMIKA

Sarrerako Baldintza

- LOGSE Batxilergo-titulua
- 20 urtetik aurrera, sarrera froga
- Ura, hondakinak, airea eta lurra.
- Ingurugiro kudeaketa ISO 14001
- Kalitate kudeaketa ISO 9000/ISO 2000
- Lan arriskuen prebentzio legea
- Enpresa hondakinen gestionatzailea

Ikasgaiak

Gerora

Aurrematricula epea
**Ekainaren
1etik 12ra**

2 INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

Sarrerako Baldintzak

- LOGSE Batxilergo-titulua
- 20 urtetik aurrera, sarrera froga
- Erabiltzailebakar eta erabiltzaileanitz sistemak
- Sare lokalak
- Kudeaketako informatika-aplikazioen ezarpena
- Programazioaren oinarriak
- Informatika-sistemako funtzioen garapena
- Datu-baseak kudeatzeko sistemak
- Lan-giroko harremanak (LGH)
- Lan-prestakuntza eta orientabidea (LPO)
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza (KEH)
- Lantokiko prestakuntza (LP)
- Informatika-sistemen mantenimenduko teknikaria

Ikasgaiak

Gerora



Auto EASO



labe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955


**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

**IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK
ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN**



- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin.
1,4 milioitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,...
inguruan.

686 414 901 - 943 450 721

**INMOBILIARIA
adarra**

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

BEASAINGO LOINATZ JAIK



BEASAINGO UDALA

Agurra:

Urte guztiek dituzte beren gauza bereziak, eta 2000. hau, mendearen eta milurtearen artean zubi dena, ez da gutxiagotarako. Iraganaren balantzea egin eta etorkizuna planteatzeko urtea da.

Beasain, urrats irmo eta sendoz dabil. Udalerrriak, proiektu berriz betetako kutxa handia du eta Udalak inoiz baino ilusio gehiagor lan egiteko asmoa, milurteko berriak aurrez aurre jartzen dizkion erronkei bermetasun osoz heltzeko. Hala ere, ezin alde batera utzi bere iragana eta bere historia.

Horren adierazle baino ez da gure bihotzeko lgartzako jauregiaren beheko oina berreskuratzea, hain zuzen ere, Loinatz jai hauetan gure deigarri izango den lekuetako bat. lgartza, behin betiko eta era iraunkorrean, ateak irekitzen hasi zaigu beasaindar guztioi eta bisitatuko gaituztenei. Inauguratuko den diaporama, gure iraganaren eta egungotasunaren ikusentzunezko erakuslea da.

Bestalde, egitarau honek, jarduera ugari eta oso desberdinak dakartza eta ziur nago bakoitzak, bere gustukoak dituen dibertimendu aproposak aurkitu ahal izango dituela.

Esker bereziak, beren ideia eta ekimenen bidez, egitarau hau hain atsegina egin duten guztiei.

Azkenik, arrazoi desberdinengatik gure artean ez dauden beasaindar guztiak gogoratu nahi ditut. Agur bero bat bidali nahi diet guztiei eta datorren urtean gure artean izatea itxaro dut. Eta besterik ez. Loinatz jai alai eta atseginak igaro ditzazuela.

Jon Jauregi Bereziartua
Beasaingo Alkatea



Komunio Txikia

Igande honetan, maiatzaren 28an, 13 neska-mutikok egingo dute jaunartzea parro- kian izango den 12:00etako mezatan. Bertan izango dira Garazi Aldalur, Jone Inurra- tegi, Nahikari Urkiola, Maria Gerriko, Aitor Montes, Jon Urbizu, Josu Rodriguez, Igarki Intxausti, Maider Mu- jika, Mireya Paredes, Naiara Aldanondo, Ander Kaloka eta Lander Irastorza.

Igerilekurako lana

Uda honetan Oxiña igerile- kuan sarrerak kobratzeko, al- dagelak eta komunak garbi- tzeko eta tabernako lana egi- teko deialdia zabaldu du uda- lak. Baldintzak: 3 lagunez osatutako taldea izatea, he- rritarra, euskalduna eta 18 urte beteak izatea. Izena emateko epea maiatzaren 31 arte egongo da zabalik. In- formazio gehiago udaletxe- an.

Sanjoanetarako entsaioak

● Umeen danborradarako entsaioak maiatzaren 19an hasi ziren Baratze pilotale- kuan. Interesaturik dauden haurrak eta laguntzaile izan daitezkeen gurasoak, astele- hen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 5,30etan gingo diren entsaioetara ager daite- zela.

● Txistularien alardea. Herrian inoiz txistua jotzen aritutakoen alardea ekaina- ren 23an izango da. Horreta- rako lehen entsaioa maiatza- ren 27an arratsaldeko 7etan egingo da Baratze pilotale- kuan. Bertan, partiturak ba- natu eta ondorengo entsaioe- tarako egunak zehaztuko di- ra.

● Euskadiko XXIV. Suelto dantz txapelke- ta. Bertan parte hartzeko oi-

Santa Barbara eguna ekainaren 4an

Azintzio eguna aurtengoan ekainaren 4an bada ere, aste horretako jaien, goizeko 9etan izango da Santa Barbara ermitako meza au- zoan hildakoen alde. Haitz-lehorko tontorre- ra igotzen direnek pronto izango dituzte ka- fea, gailetak eta anixa. Errito nagusia meza

aurretik egingo da: bertako 31 pagoetako adar bat erabiliz, lurak, abereak eta etxeak bedeinkatuko dira lau haizetara. Mezaren ondoren, Kortaberritarrek traktorean igotako hamaiketako eskainiko da (Udalaren la- guntzaz).

narriak Segurako udaletxean edota Euskadiko Dantzarien Biltzarrean aurki daitezke.

Bola

Maiatzaren 21ean Segurako 'Txoritegi' bolatokian jokatu zen 'Lehendakari Kopa'ko lehenengo jardunaldia, Xe- peiño Agirrek irabazi zuen 47 birla jota. Bigarren eta az- ken saioa maiatzaren 28an jokatu da Altzan.

Bestalde, 9 jardunaldiren ondoren, maiatzaren 13an amaitu zen Goierriko txapel- ketan 2. egin zuen Xepeiñok.

Ekainaren 10ean Bizkaian izango den Euskadiko txapelketarako Xepeiño Agirre, Antonio Agirre, Imanol Agi- rre eta Jexux Mari Intxausti daude sailkatuak.

Kirol eskolarra

Bihar, maiatzak 27, areto- futboleko jardunaldiak izan- go dira Baratze pilotaleku ondoan. Goizeko 11etan nes- ka alebinek Jakintzakoen aurka jokatu dute. 12:00etan, berriz, mutil ale- binek Aita Iparragirrekoen kontra. Mendi irteera izan ezik, gainerako aktibitateak asteburu honetan amaituko dira.

Futbola

Asteburuko emaitzak:

Preferentea: Segura 2 - 2 Anaitasuna. Jubenilak: Sportin Herrera 5 - 2 Segura.

Asteburuan etxean: Segura - Mundarro (jubenilak). Zapa- tuan, 16:00etan.

Preferentekoei partida ba- karra geratzen zaie. Zapa- tuan Urolaren aurka jokatu

dute 17:00etan Zumarragan. Galduta ere, mailari eutsi egingo diote.



Jon Ander Hombrek preferente mailako goleatzailer nagusi ge- ratzeko aukera du. 37 darama- tza penaltirik bota gabe.

Jubenilak, berriz, mailaz jaisteko arriskuan daude. Nahiz eta azken partida ira- bazi, beste emaitza batzuren zain egon beharko dute.

Labur-labur

● Ekainaren 11n Ataunen izango den gaisoen egune- rako ekainaren 5a baino le- hen eman behar da izena. Horretarako Nekane Intxaus- tirekin (943 801427) edota III. adinekoen egoitzarekin jarri harremanetan (943 801008).

● Korpus eguneko ardo partiketa eta herri afaria, San Joan bigarreneguneko egitea toka- tzen bazen ere, Sanjoanak di- rela eta Korpus egunera pa- sako da, ekainaren 22ra. Pro- zesioa 25ean egingo da.

● Ordiziako Laguntasuna Errondailak 40. urteurrena ospatzeko atera berri dituen kaseta eta CDa Jermanenen daude eskuragai.

Joseba Telleria



Pilota

Gipuzkoako herri arteko txapelketan jokatzeko ari diren ligas- kan, Segurako taldeak badu sailkatzeko aukera. Zestoarren aurka 6 partidatatik 3 irabazi zituzten eta lazkaotarren kontra 6tik 4. Aste honetan zein hurrengoan Zestoa eta lazkaotarren arteko partidak jokatu dira. Hiru taldeetatik bakarra sailka- tuko da. Argazkian, aurtengo herri artekoan ari direnak: ka- deteetan Enetz Olano eta Garikoitz Oiartzide, jubeniletan Xa- bier Etxeberria eta Unai Lopetegi eta afizionatuetan Jon An- der Honbre eta Ibon Etxeberria.

Hazia erein ostean...

Uzta jasotzea tokatzen da. Horixe egiteko aukera izan genuen maiatzaren 14ean Herri Antzokira hurbildu ginenok. Horrelako okasioetan ohikoa denez, alkate jaunak egindako zinta mozketarekin ireki zen, ofizialki, antzoki berria herritarrontzat. Kanpoko itxurak itxura, barruan egindako lan bikainak guztion onarpena jaso zuela esan genezake.

Harrera ekitaldiari hasiera eman zain geundela, euskal presoekin solidarioak agertu ziren taula gainean, jendearen txalo artean. Dozena bat solidariok, ekimen ixil horren bitartez, euskal presoen egoeraz orokorrean eta bereziki, 97. urtetik etxean behar-ko lukeen Karlos Ioldi eta gose greban 19 egun (astelehenean) daramazkien Aratz Gomezen egoeraz egin zuten protesta. Taula gainean egon ziren Aitor Auzmendi alkateak harrera hitzaldia bukatu artean. Ondoren herriko dantzariak ikusteko eta Eate abesbatza entzuteko aukera izan genuen. "Ezet 40 ezetz" filme laburrarekin eman zitzaion amaiera ekitaldiari. Ondoren, bazterrak ikusi eta barrenak betetzeko aukera izan zen, sarreran

eman zuten luntxarekin.

Bertsotxapelketa

Aitorrek ederki asko adierazi zuenez, orain herritarroi dagokigu bitarteko horri ahalik eta probetxurik handiena ateratzea. Horretarako aukera ederra izan genuen joan den ostiralean. Gipuzkoako Eskolarteko 20. Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioa bertan jokatu baitzen. Bi mailatan zatitu zen kanporaketa. 14 urtez behekoetan hiru ataundar aritu ziren. Agurraren ondoren, Aitzol Munduate eta Oier Zurutuzak oinak emanda bertso bana bota zuten. Gero, gaia emanda beste bana Munduatek eta Aitz Aierbek. Horretantxe bukatu zen gaztetxoaren saioa.

Bigarren mailan, 14tik 18ra bitartekoan 8 bertsolari aritu ziren. Hernaniarrak bi, mutrikuar bat, bi beasaindar, Irati Goikoetxea eta Iñaki Apalategi, urrestillar bat eta alegiar bat eta azkenik Iban Urdangarin, herritarra.

Agurraren ondoren egin behar izan zituztenak, honakoak: Lau oinak eman eta bertsoa osatzea, ofiziotan bina bertso zortziko handian, puntuka eta azkenik eman-



San Isidro eguna

Eguraldia lagun, giro polita egon zen San Martingo plazan astelehenean. Ohiko frutazaleaz gain, produktu desberdinak salgai zituzten postuzaleak ere inguratu ziren. Eta noski, urteroko barazki eta ziza lehiaketara aurkeztu ziren herritarrenak ere ikusgai izan genituen. Hauez gain, herriko gaztai eta sagardoa probatzeko aukera ere bai.

Beren baratzeko produktuekin parte hartu zuten Patxi Erauskin (irabazlea), Arratin-go Juanita Aierbe, Juan Arrondo, Mari Karmen Barandiaran, Zeferino Auzmendi, Rosario Agirre, Fatima Fonsekak eta Miren Aierbek. Hauetatik lehenengo seirak suertatu ziren saridun. Barazki mota ugari ikusi ahal izan genuen, indaba, aza, porru, patata, marrubi, gerezi, kalabaza, esparrago... begiei poz ederra emateko modukoak, denak ere. Ziza lehiaketan bost partaide izan ziren: Zeferino Auzmendi (irabazlea), Jexux Agirre "Repo", Juanita Aierbe, Martin Aldasoro eta Itxaso Barandiaran.

Gaztaietan ere bazen non aukeratua. Kotxerako Jose Gandariasena, Aranberriko Josu Aldasoro edota Amoskategiko Juan Isidro Sukiarena. Han ziren baita ere Juana-eneko Jose Inazio Arzaren gaztai edota Lizarrustiko M.A. Barandiaran eta J.M. Zinkunegirenak ere. Eztarria bustitzeko berriz, Urbitarteko sagardoa eta giroa alaitzeko trikitixa. Ondoren, noski, bazkaria.

dako gai baten gainean bertsoa.

Epaimahaian zeuden Antton Kazabon (idazlea), Arantzazu Loidi eta Imanol

Lazkanoren esku dago orain, ekainaren 2an Azpeitian ospatuko den finalera nor joango den erabakitzea.

Agurtzane Bikuña

LABUR-LABUR

● **Gipuzkoako txapeldun tenisean:** Donostian jokatu berri den Teniseko Taldekako Gipuzkoako Txapelketa J.M. Barandiaran eskolako neska-mutil alebinak suertatu ziren txapeldun. Mailen Sukia, Garazi Aierbe, Garazi Etcheberria eta Monika Arratibelek Donostiako Herri Ametsakoen aurka irabazi zuten. Xabier Altuna, Unai Arizmendi, Harri Herguedas, Iñigo Dorronsoro eta Iban Fernandez aldiz, txantxi-kuarrei gailendu zitzairen.

● **Aitor Auzmendi alkatea epailearen aurrean** izan zen joan den astean 97. Urtean Udalbiltzak aho batez onartutako gazteen aliamendua ez egiteko eta ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakiagatik.

● Muntsetako **Pedro Aierdi** hil zen. Doluminak sendiari.



Rosa Maria Gullon: "Goierriin pintura ikasteko eta erosteko zaletasun handia dago"

Rosa Maria Gullon Beasaingo margolariak Artetsu arte denda ireki berria du. Artea eta gusto ona derrigorrean diru askorekin lotua dagoen ideia desmitifikatu nahi duen lekua da. Koadroren bat erosi nahi duenak erakusketaz erakusketa eta galeriaz galeria ibili beharrean, Beasainen badu aukera. Neurri, estilo, teknika eta prezio ezberdineko 200 oleozko koadrotik gora daude bertan. Irakaslea ere bada Gullon eta Goierriin pintura ikasteko zaletasun handia dagoela dio.

Kalitatezko artea arrazoizko prezioan. Hori da Artetsuk eskaintzen duena. Artea, gustokoa duen eta arteaz gozatzen duen guztiengana gerturatzea du helburu, pre-

Umetatik margolari



13 urte zituenetik buru-belarri pinturan murgilduta dago Rosa Mari Gullon. Pintura figuratiboa egiten du, batez ere olio-pintura, batzutan pintzela erabiltzen du eta loreak margotzen dituen guztietan espatula.

Hasieran, akademia ezberdinetan ikasiz, pintura ikasketetan sakontzen, eta geroago erakusten. Duela bost urte Beasainen Arteleku akademia ireki zuen eta teknika eta maila guztietako marrazketa eta pintura klaseak ematen dira. Akuarela, pastela, ikatz-marrazkiak, luma-muturra, olio, egurraren, alabastroaren eta kristalaren gaineko pintura... Portzelanaren gaineko pintura ere egiten dute, teknika txinatarrekin, 800 graduko labearen egosita.

1973. urtean egin zuen lehenengo erakusketa eta harrezkero makina bat egin ditu, Estatu espainiarrean, Frantzia eta Amerikan. 1997. urtetik Nazioarteko Arteko kide da.

zioa oztupoa izan gabe. Goierriin, era honetako lehenengo denda da. "Jendeak koadro bat nahi duenean ez baitu jakiten nora joan. Ga-

tan 15-20 koadro egoten dira. Baina hemen pareta guztiak egile ezberdinen koadroz beteta daude, bezeroak nahi duena aurkitzeko zailtasunik izan ez dezan", dio Gullonek. Gehienak olio-pinturak mihisean dira, marko eta guzti. Dena den, norberaren gustura alda daitezke. Markotatze zerbitzua ere badaukate eta enkarguz ere egiten dira lanak.

Zaletasun handia

Beasaingo Arteleku akademiako irakaslea ere bada Rosa Maria Gullon. Momentu honetan marrazketa eta pintura ikasteko zaletasun handia dagoela dio, haur eta helduen artean. "Askok gainera ezkutuko dohainak aurkitzen dituzte". Erosi ere gero eta jende gehiagok erosten du. "Polita eta ona baloratzen du jendeak. Gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio paretak dekoratzeari, koadroa altzari bezala ulertzen baita, dekorazioari dagokionean", gaineratu du.

JVLKI
GOZODENDA
Jai zoriontsuak!
Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19
☎ 943 88 82 37 BEASAIN

Proba itzazu
"Beasaingo Martintxoak"

**BEREZIARTU
TAPIZTEGIA**
Kale Nagusia, 9 ☎ 943 88 04 98 BEASAIN

M-18
Nagusia, 13 BEASAIN

*Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikulak*
Sta. Maria, 15 ORDIZIA

Herri kirol jaialdi bikaina Legorretan: Mindegia eta Goenatxo II.a protagonista

Ekainaren 4an, arratsaldeko 6etan, herri kirol jaialdi bikaina antolatu dute Legorretako Harripila kiroldegi berrian. Bertan Mikel Mindegia azkenekoz enbor haundi bat ebakiko du plazan, Goenatxo II.ak 200kiloko harriarekin marka ahalegina egingo du eta Aitor Esnaola legorretar gaztea trontzan arituko da. Jaialdia Insausti Harria batzordeak antolatu du, hau dela eta, herri honekin egiten duten lehiaketa datorren urterako utziz.

Jaialdia bikain hau gainera ETBK grabatuko du hurrengo igande eguerdian emateko asmoz. Mikel Azarola, herri kiroltako epailea, da Insausti Harria batzordearen bultzatzailea eta berarekin izan gara jaialdiaren nondik norakoak ezagutzeko.

Mikel Mindegia

Mindegia urteetan aurrera doa, aurtan 51 bete ditu, eta erretiroan pentsatzen ari dela jakitean, Legorretara ekarri beharra zegoela pentsatu zuen Mikel Azarolak. Mindegiaekin harremanetan jarri zen Legorretan enbor haundi bat ebakitzeko eta



prest azaldu zenez, diru aldetik akordio batera iritsi ziren. Iaz hasi ziren prestatzen eta orain ustekabearen Mindegia urrezko aizkorako finala jokatuko du, Olasagastiren aurka, egun berean goizez.

Maiatzaren 10ean joan ziren egurra ikustera. "Nik ikusi gabe --dio Azarolak-- ez zeukan botatzerik. Lehenen-

go Frantzian Lurdesetik gertu zuen ikusita, hango egurra hemengoa baino bigunagoa baita. Hura ekartzeko asmoz joan ginen baina ez ziguten baimenik eman. Berak badauki non dauden egurrak eta Iratira etorri ginen. Pagoa neurtu eta 3,20 metroko gerrira zuen, diametroa 1,20koa. Bota genuen eta hantxe dago ekartzeko prest".

Legorretan egur haundiekin azken saioa egingo du Mindegia. "Eta urrezko aizkoran egiten duenaren arabera, ez zait iruditzen Mindegia berri ere txapelketan ikusiko dugunik. Erakusketetan jarraituko du baina...", pentsatzen du Azarolak.

Insausti harria

Prestatu duten jaialdia ez da Insausti harriaren proba aurtan ez egitearen arrazoi bakarra. "Iaz gaizki ibili ginen jendea aurkitzeko. Txapelketak duen baldintza bakarra harrijasotzailea 80 kiloz azpitik egotea da, eta gaur egun oso gutxi daude. Atzetik gazte batzuk badatoz eta horiei urte bat utzi nahi diegu martxa hartu dezaten. Horrela, uste dugu datorren urtean jende aldetik hobeto ibiliko garela".

Aurreko urteetan Insausti harriarekin egindakoak gustora daude antolatzaileak. "Herri kirolik ez zen izaten Legorretako jaietan eta herri zahar honekin urtero frontoi eta plaza jendez bete dugu. Telebista ere etorri izan da eta Euskal Herri mailan ospea hartu du harriak. Insausti Harria batzordea ere legalki izendatu nahi dugu Eusko Jaurlaritzan. Horrela jarraipena eman nahi diogu. Egunen batean harria puskatu edo zerbait gertatzen bada ere, batzordeak lanean jarraitze-ko asmoa dauka", azaldu digu Mikel Azarolak.

Goenatxo II.a

200 kiloko harri errektangularrarekin 2 minutuko txandatan marka jarri nahi du Goenatxok. Orainarteko marka 8 jasoalditan dauka, duela 4 urte jarria, eta bere asmoa 10 jasoaldi ematea da.

Aitor Esnaola

Trontzan Aitor Esnaola legorretar aizkolari eta trontzalari gaztea arituko da. Bera eta Joxe Gabirondo, Bizkaiko txapeldunen aurka arituko dira. Legorretan prestatu duten jaialdian herriko trikitilariak ere izango dira.

Apostuak

Jaialdiko sarrera doan izango da, Udalak eta Kutxak lagundu baitiete antolatzaileei. Apustuak ere izango dira, herriko areto futbol taldeari laguntzeko. Futbol taldekoak izango dira korredoreak. Txartel batzuk aterako dituzte eta apustu bakoitza 200 pezetakoa izango da. Txartelean Mindegia enborra zenbat denboran ebakiko duen jarri beharko da eta gehien inguratzen denak jasoko du dirua. Mikel Azarolari gutxi gora-beherako denbora bat eskatu diogu: "Goizean Azpeitian gertatzen denak eta eguraldiak zeresan haundia izango dute, baina, nik uste dut 35 minututan ez duela bukatuko".

 **aulia**
TOLARE
SAGARDOEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Maite Ruiz de Larramendi Mujika, beasaindarra, Munduko pala txapelduna

Maite Ruiz de Larramendi Mujika. 26 urte ditu.

Beasainen jaioa bada ere, txikitatik jo zuten Nafarroa aldera. Arrieta baserriko ondorengoa da. Uda Urban pasatzen zuten, bertako tabernan; gainerakoa Eulaten. Pilotaria da eta Munduko pala txapelduna da Maite. Atzean jokatzen du.

18 urterekin hasi zen palan jokatzen. Aurretik, 13 bat urterarte, eskuz jokatzen zuen. Akordeoia jotzen ikasten hasi zen eta irakasleak pelota uzteko gomendatu zion. 8 urterekin Lizarrako San Migel klubean hasi zen pelotan jokatzen eta mutilekin bikotea osatuz jokatzen zuen. Ruben Beloki pilotariarekin pilotan aritua da; batzuetan aurka eta beste batzuetan bikote lagun. "Behin finalurreko batean irabazi egin genion eta negar egiten zuen amorruarekin. Pentsa orain non dagoen Beloki. Irabazten duenaren laurdena emango baligute!"

Dena den, pilotan lehenengo urratsak Urbasko pilotalekuan egin zituen. "Aitonarekin, gurasoekin, anai-arrebekin... jokatzen nuen. Ia oinez jakin gabe ere pilotarekin han ibiltzen omen nin-



asko daude. Frantziarrak asko entrenatzen dira". Garaipen honi esker, martxoan Parisko Openean jokatu zuten.

Espainiako selekzioarekin jokatzen dituzte munduko txapelketak. Maite Ruiz, Maider Mendizabal, Eli Lasa eta Susana Munetak osatzen dute taldea. Guztiei omenaldia egin zitzaizen Beasainen 1999ko irailean. Oso polita izan omen zen, hunkigarria, eta eskerrak eman nahi dizkie Maitek beasaindarrei omenaldiarengatik. Hurrengo munduko txapelketak 2002. urtean izango dira, Iruñean ziurrenik, eta Euskadiko selekzioarekin jokatzea ez lukete gaizki ikusiko.

tzen".

18 urte zituela deitu zioten Susana Munetarekin batera palan bikotea osatzeko proposamenarekin. Palari serio heldu zion harrezkero. Munduko pala txapeldun izateraino iritsi da.

Gipuzkoa aldean neskak gehiago mimatzen badituzte ere, Nafarroan alderantzizkoa da. Ia ez dute lehiaketarik izaten. "Zaletasun oso handia daukagulako segitzen

dugu aurrera. Saltsa guztiak ahaztu egiten zaizkigu palan jokatzen hasten garenean", dio

Beraien lana errekonozitzea besterik ez du eskatzen Maitek. "Mutil askok ez daukate gure kurrikulumik. Baina gure kasuan tituluek ez dute ezertarako balio. Sariatari ere alde handia dago. Kasu batean, mutilei torneoa jokatzeagatik 100.000 pezeta eman zizkieten eta neskei,

Beasaingo omenaldia

1998an Mexikon munduko txapelketa irabazi zuen. A no eta ko Maider Mendizabalekin osatu zuen bikotea. "Frantziar eta Argentinan maila handia dago, pilotari

patxaran botila bana eta gazta bana".

Jendea joaten da nesken pilota partidak ikustera. Pilotalekuan mutilen aurka jokatzen dute eta apustuak ere izaten dira tartean. "Hasieran, entrenamenduetan mutilek ez zuten gurekin jokatu nahi izaten. Batzutan galdu egiten dute eta ez diete grazia handirik egiten".

Trinketean

Pilotalekuetan hasi ziren palan jokatzen, baina kanpora atera nahi izanez gero, trinketean jokatzen hasteko gomendatu zioten. "Trinketea zer zen ere ez genekien. Sakea nola egiten zen ere ez genekien". Oso ezberdinak omen dira trinketea eta pilotalekua. "Trinketean goitik eman behar zaio pilotari, pilotalekuan, behetik. Pilota ere ezberdina da. Trinketeko pilotak 50-60 bat gramo pisatuko ditu eta pilotalekukoak 80. Trinketea askoz ere teknikoagoa da, azkaragoa".

Baina trinketeak badu beste arazo bat palariantzat. "Nafarroan trinkete gutxi daude, Lizarra aldean ez dago. Eguneroko lanetik atera, eta kilometro asko egin behar izaten ditugu entrenatzeko. Gertueneko trinketea 70 kilometrorara daukagu", zehaztu du.

Urlo
ALTZARIAK

ESTEBAN LASA, 5 ☎ 943 88 97 95 BEASAIN



Jai zoriontsuak!

ASTI PUB

Zaldizurreta kalea
☎ 943 88 45 06 BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

➔ Beasainen etxebizitza salgai. 60 m²koa. Bizitzan jartzeko moduan. 655 74 18 01.

➔ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

Ibilgailuak

salgai

➔ Mobylette motorra salgai. Egoera onean. Motorrez ondo. 25.000 pezetan. 943162510.

➔ Land Roverra salgai. 88 ligero diesela. BI-AC. 943801107 (Joxe).

➔ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

➔ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➔ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. BI-BC matrikuladuna. 943801802. Xabier. 21:30etik 22:00etara deitu.

Animaliak

salgai

➔ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➔ Setter ingeles txakurkumeak salgai, pedigree oso onekoa. 667 955443. Aitor

opari

➔ Katakumeak opari. 600 648788.

➔ 4 katakume, 'lehoi txikia' itxurakoak, opari. 15 egun ingurukoak. 943 880402.

➔ Txakurra oparitzen da. Artzai eta arratoi txakurren nahasketa. 943886674.

Bestelakoak

salgai

➔ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➔ Conver 13, karrodenda salgai. Bi abantzekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➔ Auto telegidatua salgai. Mega desert racer markakoa. Berria. 10.000 pezetan. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

➔ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➔ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauez telefono honetara: 943 161638. Etxeetara eramaten da.

Lana

➔ Beasainen neska bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 943888751.

➔ Mutil gazte bat behar da igeltseritza lanerako. 943889576.

➔ Emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943888735.

➔ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

➔ Neska euskaldun bat behar da asteburuetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. 943880044.

➔ Sukaldari edo tabernari bat behar da Ordiziako taberna baterako. Euskalduna eta ahal bada goierritarra. 943160471.

Urrezko ezteiak



Jesus Bikuña - Guadalupe De Las Heras

Ekainaren 1ean urrezko ezteiak ospatuko dituzten Jesus Bikuña eta Guadalupe De Las Heras zorionak, 7 seme-alaben eta 9 biloben partez.

Juan Bautista Agirre eta Isidora Ugartemendia

Familia guztiaren izenean, zorionak eta urte askotarako! Maiatzaren 28an, urrezko ezteiak ondo-ondo ospatu ditzazuela.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

IGELTSERO LAGUNTZAILEA
Goierri. Erref.: 32418/7

6 ELEKTRIZISTA
Altsasun. Erref.: 32990/1

TORNERO KONBENTZIONALA
Tolosan. Erref.: 32742/2

3 INKESTATZAILE
Donostian. Erref.: 32829/1

PINTURA ENKARGATUA
Olaztin. Erref.: 32329/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401



GOIERRI LANBIDE ESKOLA

bulegoa@goierrieskola.org
www.goierrieskola.hezitek.net

24 Posta Kutxa
☎ 943 88 00 62 / 66
Faxa: 943 88 83 51
ORDIZIA



2000/2001 IKASTURTERAKO GOIERRI LANBIDE ESKOLAREN ESKAINTZA

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- MEKANIZATUA
- GALDARATEGI- SOLDAKETA

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK
- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- METAL ERAIKUNTZAK
- INDUSTRIAL EKIPOEN MANTENIMENDUA
- ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK

IZEN EMATEA:
Ekainaren 1etik 12ra

Ikastetxeko bulegoetan
goiz eta arratsaldez

GUZTI HAU 'GOIERRIKO' HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN,
BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOLTSA



ZINEA

GOIENIZ:

Maiatzak 25, 'Pscosis', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

ZINEA EUSKARAZ:

Maiatzak 31, 'Biziaren arbo-la', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Yoyes'.

Ostirala 26: 22:15

Larunbata 27: 19:30 - 22:15

Igandea 28: 17:00 - 19:30-22:15

Astelehena 29: 19:30 - 22:15

ORDIZIA:

'Historia de lo nuestro'.

Ostirala 26: 22:15

Larunbata 27: 22:15

Igandea 28: 19:30 - 22:15

Astelehena 29: 19:30 - 22:15

'Pokemon'.

Igandea 15: 16:45

bertsoak

ALTZAGA:

Ekainak 4, Imanol Lazkano eta Jon Maia, 14:00etan, Altzagarten.

BEASAIN:

Ekainak 6, Iñaki Mu-
rua, Sebastian Lizaso,
Andoni Egaña eta Aitor
Sarriegi, Loinazko San
Martin plazan,
13:00etan eta 19:30ean.

ITSASONDO:

Ekainak 3, Sebastian
Lizaso, Amets Arzallus,
Xabier Amuriza, Aitor
Sarriegi, Joxe Agirre eta
Xabier Silbeira,
22:30ean, Errota pilota-
lekuan. Gai-jartzailea:
Nikolas Zeberio.

LEGORRETA:

Maiatzak 27, Joxe
Agirre, Igor Elorza, Se-
bastian Lizaso, Aitor
Mendiluze, Anjel Mari
Peñagarikano eta Aitor
Sarriegi, herri zineman,
22:30ean.

musika

BEASAIN:

Maiatzak 31, Musika
Eskolako ikasleen kon-
tzentua, Udaletxeko ba-
tzar aretoan, 19:30ean.

Ekainak 2, 'Basque
ska old stars', Bideluze
plazan, 23:00etan.

Ekainak 3, Nafar jo-
tak, Loinazko San Mar-
tin plazan, 00:30ean.

Ekainak 4, 'Skala-
riak', Bideluze plazan,
23:00etan.

LEGORRETA:

Ekainak 1, Etzakit,
plazan. 23:30ean.

ORDIZIA:

Maiatzak 27, 'Araujo
y los mecanicos', Barre-
na Kultur Etxean,
19:30ean.

ZALDIBIA:

Ekainak 2, Mikel Te-
lleria idiazabaldarraren
'Deklarazioa' diskoaren
aurkezpena, Herri an-
tzokian, 22:00etan.

antzerkia

ORDIZIA:

Maiatzak 26, Poltsi-
koko ikuskizunen ba-
rruan, Belladona taldea-
ren 'La frigidez como
manifestacion explosiva
de la ninfomania' antzer-
kia lana, Barrenan,
22:30ean.

Ekainak 2, Poltsikoko
ikuskizunen barruan,
Free Pelota Cafe-Teatro-
ren eskutik, 'El marido
de la Pakita' antzerkia la-
na, Barrenan, 22:30ean.

ikusentzuneakoak

ITSASONDO:

Ekainak 1, Josu Iztue-
taren 'Hiru pauso hiru
norabide' diaporama,
Gaztetxean, 19:30ean.

LAZKAO:

Ekainak 7, Javier Fer-
nandezaren 'Tenako Hara-
na' diapositiba emanal-
dia, Maizpiden,
21:00etan.

IBAI-ONDO

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43

Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✖ Ordenadore salmenta
- ✖ Konponketa
- ✖ Informatika ikastaroak
- ✖ Etxeko zerbitzu teknikoak

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

dantza

ORDIZIA:

Ekainak 4, Dantzari Txiki eguna: Gabiria, Dulantzi, Lazkao, Orereta, Zarautz, Zaldibia, Urretxu, Lasarte eta Ordiziako taldeekin.

ZALDIBIA:

Maiatzak 28, Egunean zehar, Dantzari Txiki eguna. Ordizia, Lazkao, Beasain, Lasarte, Bera eta Zaldibiako dantzariak.

hitzaldiak

LAZKAO:

Maiatzak 30, Gillermo Roa Zubiaren eskutik, 'Itsasoaren erantzunak' hitzaldia, Maizpiden, 21:00etan.

ZALDIBIA:

Maiatzak 30, Globalizazio gaiaren inguruko hausnarketa, 'Euskal Herritik Euskal hirira'. Hizlaria: Gariokitx Plazaola eta AHTEko aurkako kide bat, 20:00etan, Kultur etxean.

Zinea euskaraz

Maiatzaren 31n, 21:00etan, Usurbe Antzokian, 'Biziaren arbola', filma euskaraz ikusteko aukera izango da. Goieniz zine klubak, Goierriko Euskal Eskolak eta Irizar Kooperatibak antolatuta dute ekitaldia eta sarrera doan izango da. Farhad Mehranfaren filma da.

Maiatzak 31, Rufino Iraola eta Iñaki Murua, 'Artxanberri eta Lazkao Txiki bertsolarien nondik norakoak' hitzaldia, Kultur etxean, 18:00etan.

Ekainak 1, Globalizazioaren nondik norakoak, zer da, zergatik... Hizlariak: Mikel Zurbano (EHUKO irakaslea), Joselu Cereceda (LABeko kidea) eta EHNEko kide bat, 20:00etan, Kultur etxean.

Ekainak 7, Nerabezaroa eta sexualitatea, Amaia Vazquezen eskutik, 14:00etan, Kultur etxean.

Ekainak 14, Nerabezaroa eta familia, Txus Congilen eskutik, 14:00etan, Kultur etxean.

erakusketak

BEASAIN:

Ekainaren 2ra arte, Martin Osinalde margolariaren panoramika erakusketa.

Ekainaren 2tik 11ra arte, Erretiratuen etxeko tailerrean egindako eskulanen erakusketa, Erretiratuen etxean.

Maiatzaren 28ra arte, Urbietako Arte Plastikoen Zentroan egindako pintura tailerren lanen erakusketa, Usurbe Antzokian.

Ekainaren 4tik aurrera, Beasaingo Hiria argazki lehia-ketako lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketaren aretoan.

ITSASONDO:

Maiatzaren 30etik ekainaren 4ra, Josu Iztuetaen 'Hiru pauso hiru norabide' erakusketa, udaletxean.

LAZKAO:

Ekainaren 1etik 16ra, 'Gipuzkoako paisajeak: itsasertza' erakusketa, Kultur etxean.

ORDIZIA:

Maiatzaren 28ra arte, Killy Beallen erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 27-28, Kanpaldia San Adrianen.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Maiatzak 27-28: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 16 09 49.

Ekainak 3-4: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.

IKASTEK AKADEMIA 2000ko uda

☎ 943 160 120
Joan Iturrilalde, 5
BEASAIN

Lehen eta bigarren hezkuntza, LH, DBH (ESO)

Matematika tailerra:	Ikas-mikasd tailerra:
✓ Kalkulua	✓ Arreta mantendu
✓ Buruketak	✓ Memoria garatu
	✓ Arrazoiaketa landu
	✓ Sormena garatu
	2000-01 ikasturterako matrikula zabalik
Batxilergoa:	Hizkuntza tailerra:
✓ Hizkuntz-ulermena	✓ Gaztelera
✓ Espresioaren lanketa	✓ Euskara
✓ Testu komentaketak	✓ Ingelera
✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa	Irakurketa
	Ulermena
	Ortografia
	Idazmena

Talde txikiak

Banaka atentzioa

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 610 02 00 41

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA 2000ko uda

☎ 943 160 120
Joan Iturrilalde, 5
BEASAIN

Lehen eta bigarren hezkuntza (6-16 urte):

- ✓ Tailerrak
- ✓ Ekaineko azterketak
- ✓ 2000-01 ikasturteko prestaketa

Batxilergoa DBHO (LOGSE) I eta II (16-18 urte)

- Humanitiskoa, zientifikoa, teknologikoa:
- ✓ Errekuperaketak
- ✓ Selektibitateak
- ✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa

- Unibertsitate maila:
- Ekaina - Iraila azterketak
- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Enpresaritza
- ✓ Fisika - kimika
- ✓ Farmazia

2000-01 ikasturterako matrikula zabalik

Pilar Alzuri: "Txirrinduan joaten nintzen herririk herri argazkiak ateratzera"

Jaiotzez Arano herrikoa da Pilar Alzuri. 25 urterekin etorri zen Beasaina, argazki negozioa jartzera. 84 urte ditu. Kontaezinak dira ateratako argazkiak, baita etxez etxe eta herriz herri txirrinduan egindako kilometroak ere.

Pilar Alzurik 20 urte zituenean hasi zen gerra. Oso gertutik bizi izan zuen gerra. "Nafarroa berehala nazionalarekin gelditu zen eta Donostia gorriekin. 500 biztanle bizi ginen eta 1.500 soldadu egon ziren. Berehala Donostiara joan nintzen, zerbitzera", esan digu Pilarrek.

Egun batean, Donostiako argazki denda batean apren-

diza bat behar zuela zioen karteltxoak ikusi eta hantxe hasi zen lanean. Erretratua zer zen arrastorik ez zeukan artean. "Jaio nintzenetik naiz mainatsua, ikusten nuen guztia egin beharra neukan". 8 eguneko probarako hartu zuten argazki dendan eta zerbitzari lanarekin uztartuz aritu zen lanean argazki dendan. Pasaiaiko mutil-laguna zuen, baina gaixotasunez hil egin zen. Mutil-laguna hil eta hilabetara, esperientzia txarra bizi izan zuen argazki dendako nagusiarekin, "nireganako eskubideak zituela uste izan zuen-eta.



Gaur egun entzuten diren zerrikeriak orduan ere baziren", aitortu digu.

Goierriara

Ordiziara etortzeko aukera izan nuen orduan. "Senar-

emazte bikote bat eza-gutu nuen eta erdibana jarri genuen negozioa. Senarra oso gaixoa jarri zen eta lan guztia niretzat izan zen. Irabaziak, ordea, hiru zatitan banatu behar izaten nituen".

Ordiziatik Beasaina. 25 urte zituela etorri zen Beasaina. Kale Nagusiko 10.enean izan zuen denda eta estudioa jarrita.

Argazki erreportaiak-eta egiteko ez omen zen oso ondo moldatzen eta beste argazkilari bat hartu zuen, lasterrera bere senarra izango zena. Hiru alaba izan zituzten. Bi alaba gazteenek jarraitu dute gurasoen bidea.

Labores Otea

Gurutze-puntua, puntu erdia eta artiletan berezitasuna

Bordatuak eta arropa konponketak egiten dira

Andra Mari, 1 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN

Usurbe
INPRIMATEGIA

Tel./Faxa: 943 88 63 63
Joan Iturralde, 7 BEASAIN

Success
by COMPETENCE
trodat

Diseinu grafikoa
Enkuadernaketak
Serigrafian inprimaketak
Kautxozko zigituak
Bobinetan etiketa itsaskorrak
Inprimaki komertzialak orokorrean

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak

Jaietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

Nagusia, 3
☎ 943 88 92 10
BEASAIN

MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✕ ERREFORMAK
- ✕ PROIEKTUAK
- ✕ ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

Jai zoriontsuak denoi!

Txirrinduz

Asko aldatu da argazkilaritza Pilar Alzuriren garaitik. "Gaur egun argazkia atera nahi duenak dendara etortzen da, baina lehen txirrindua hartuta joaten nintzen baserriaz baserri, argazki makina aurrean nuela".

Pilarrek hirugarren alaba izan eta zortzi egunera, Lazkaora joan behar izan zuen baserriar batzuei argazkia ateratzera, txirrinduan alaba eta makina hartuta.

Igandeetan ere lan asko izaten zuen, "igandeetako arropak" igandean janzen baitziren.

Familia ugariei argazki asko ateratzen zizkien. Hildakoei ere bai. Ezkontzak, nortasun agirirako argazkiak, kanpoko norbait familiara etortzen zenean... Udaletxean, futbol-zelaian, festetan... argazki ugari ateratakoa da. "La Voz de Guipuzcoako eta El Diario Vasco korres-



pontsala izan nintzen, lehenengoan Alzuri izenarekin eta bigarrenean Zabala izenarekin. Futbol-zelaian, partida batean, arbitroaren la-

guntzaile bati argazkia atera nion eta gauen bertan hil egin zen. Bi argazkiak atera nituen egunkarian".

Kilometro asko egindakoa da Pilar. Behin San Salvador del Vallera joan zen, "Bilbotik 14 kilometrora dagoen herri batera. Goizeko 7etan atera eta 3etan han geunden. Argazkia atera eta etxera".

Aldaketa ugari

Argazkilaritzako aurrerakuntza guztiei heltzen saiatzen zen Pilar. "10 x 15eko argazki makina eduki nuen, tripa mugikorrarekin". Oso argazki makina gutxi saltzen zen garai hartan eta argazkilariak makina bat lan izaten zuen. Gaur egungo flaxik ere ez

zegoen. "Platertxo batean polbora jarri eta dena presatua zegoenean lehertu eta argia ateratzen zuen. Oso desoroso zen, bai lana egin behar zuenarentzat, bai argazkian atera behar zena- rentzat ere. Gero beste flax mota bat atera zuten: poltsa batean, bere bateriarekin izaten genuen, baina hura ere oso desoroso".

Errebelatzeko likidoa be- raiek egiten zuten. Gela ilu- nean errebelatzen zuten. Txuri-beltzeko argazkiak izaten ziren baina kolorea ere ematen zioten. Erreproduk- zioak eta erretokeak egiten lan asko izaten zuten.

Orain ez du argazkirik ateratzen. Dena den, pena bat badauka: Ingalaterran bizi den alabarengana hegazkine- an joaten denean, leihotik argazkia atera gabe gelditzea. Koadroak margotzea du en- tretenigarri orain.

**Pilarrek erretratua zer zen
arrastorik ere ez zeukan
argazkilaritzan lanean hasi
zenean**

Festak ondo pasa!
BASAKANA
ITURRIOZ, 11
BEASAIN

LOPETEGI
AUTO ESKOLA
GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK
Igartetxe, 2 ☎ 943 88 21 74
Oria Kalea, 14 ☎ 943 65 11 17
BEASAIN
TOLOSA

XUNA ARTEA
Jokin Telleria
MARKETERITZA
ARTEDER ETA
ESKULANETAKO
MATERIALA
☎ 943 16 23 44
Esteban Lasa, 2 C BEASAIN

URBIETA TABERNA
Karta eta eguneko menua
Kaxueletan berezitasuna
Pintxo eta errazioak
Plater konbinatuak
Jose Migel Iturrioz, z/g
(Urbietaren zentruaren parean)
BEASAIN ☎ 943 88 33 01

PEACE
ZURE BAKERO DENDA
Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto
Korreo, 25 | Garibai, 6 | Nagusia, 42
TOLOSA | DONOSTIA | BEASAIN
URBIL merkatal zentrua



1980. urteko legorretarrak

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Arantxa Iturriotz, Maria Jauregi, Laida Oiarbide, Ane Lasa, Agurtzane Iturrioz, Eurne Bidekieta, Vanessa Mujika, Izaskun Garcia, Ainhoa Lasa eta Mireia Garmendia.

Beheko ilaran: Aitzol Zunzunegi, Ekaitz Urrutia, Gorka Nieto, Inko Mujika eta Haritz Gorostidi.

M LASA
egurrak

Ondo igaro festak - Zorionak!

© 943 80 60 22 - faxa: 943 80 65 56
Beroztegi auzoa **LEGORRETA**

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta

ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)



MUJIK A
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

ARIZPE LANTEGIA
Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta
autogenoan lanak

☎ 943 80 60 98
Eguzki Etxea **LEGORRETA**

LELA
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Alpe



SUKALDEAK

SUKALDEKO ALTZARI
ETA
ELEKTRAGAILUAK



Zatoz gure erakusketa ikustera!

- Ordenagailuz diseinatu eta geuk montatuko dugu zure sukaldea.
- Formika eta haritz zura kolore aukera handiarekin.
- 5 urteko garantia
- Elektragailuak

Salmenta eta
erakusketa

MARIARATZ, 4

☎ 943 88 86 84

BEASAIN

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.


EREDU ETA MOTA GUZTETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



a g i r r e
j a n t z i d e n d a



u d a b e r r i a u d a 2 0 0 0

g i z o n e n j a n t z i d e n d a o s o e n a
s p o r t j a n t z i a k - g a z t e m o d a
z u r e e z k o n t z a r a k o d e n a

ZURE JAZKERAREN DENDA

tel, 943 88 19 97 - Nafarroa Etorbidea, 25 - geltoki aurrean Beasain